


A large, light blue stylized letter 'S' graphic that curves around the text 'Sistemaren ebaluazioa'.

Sistemaren
ebaluazioa

TESTU IDATZIAK ZUZENTZEKO ORIENTABIDEAK

A large, light blue stylized letter 'O' graphic that curves around the text 'Ebaluazio diagnostikoa' and 'Lehen Hezkuntza'.

Ebaluazio diagnostikoa
Lehen Hezkuntza

2012 ZUREKIN
BAGOAZ AURRERA



Nafarroako
Gobernua

TESTU IDATZIAK ZUZENTZEKO
ORIENTABIDEAK

Ebaluazio diagnostikoa

Lehen Hezkuntza

TESTU IDATZIAK ZUZENTZEKO ORIENTABIDEAK

Ebaluazio diagnostikoa

Lehen Hezkuntza



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Titulua:

Testu idatziak zuzentzeko orientabideak. Lehen Hezkuntza

Egileak:

Eduardo Aldasoro Lecea
Consuelo Allué Villanueva
Ángel Sanz Moreno
Mercedes Sola Palacios

Koordinazioa:

Ebaluazio Atala
Hezkuntza Ikuskaritza Zerbitzua

© NAFARROAKO GOBERNUA
Hezkuntza Departamentua

Diseinua eta maketazioa: Ana Cobo · Óscar Munárriz

Inprimaketa:

Lege gordailua:

Aurkezpena

Hezkuntzaren helburu lehenetsia da –bereziki komunikazioarekin eta hizkuntzaren inguruko gaitasunak garatzeari dagokionez- gure ikasleak gai izan daitezen, idazketaren bidez, modu zuzen eta eragingarrian, beren iritzi eta sentimenduak aditzera emateko. Helburu hori iristea dudarik gabe lagungarria izanen da askatasunean bizitzeko eta gizartean parte hartzeko hobeki prestatutako herritarrek sortzeko. Gauza jakina da, izan ere, testuak ekoiztea, idatziz gure emozioak, esperientziak, gogoetak, eta abar adierazteko gauza izatea komunikazio gaitasunaren alderdi garrantzi handikoa dela, bai eremu pertsonaletan nola gizartearen bizitzan.

Egileek lan honetan azaltzen dutenez, ikasleek beren diskurtso mentala eta beren sentimenak idatziz mamitzeko zenbateko gaitasuna duten ebaluatzea lan zaila da, planifikazioa behar duena eta irakasle taldeen lan koordinatua eskatzen duena. Hezkuntza Departamentuak onetsi duen ebaluazio diagnostiko ereduak ahalegin berezia eskatzen die bai hezkuntza agintariei eta bai irakasleei berariazko zuzenketa irispide eta moduak ezarri eta partekatze, ikastetxeari, hezkuntza zikloari eta oro har irakaskuntza sistema osoari aplikatzeko modukoak, eragingarriak izanen diren segurantzian.

Material hauen argitarapenak helburu argia du: Lehen Hezkuntza taldean lan egin nahi duten irakasleentzat baliagarria izatea beren ikasleen idatzizko produkzioa balioetsi eta zuzentzeko prozedura homogeneousko eskuratzeko. Lan honen egileek testuak ebaluatzeko eredu baten planteamendu exhaustiboa eskaintzen dute, funtsean orientabide modukoa, ikastetxe bakoitzeko irakasleek aukera izan dezaten zeinek bere testuinguruaren arabera egokitzapena egiteko. Zuzenketa eredu fidagarria eta zientifikoki konprobatua aurkitzea hain zaila delarik, kontua ez da hainbeste eredu oinarritzeko arauak edo printzipioak ezartzea, nola laguntzarako eta gogoetarako material bat eskaintzea, azken batean zuzenketa irizpide bateratuekin lan egin ahal izateko.

Lan honen osagarri eta aurrelari, beste lan bat argitaratu zen lehenago Hezkuntza Ikuskaritzako koadernoan bilduma honetan: Komunikazio gaitasuna: testu idatzien ekoizpena. Zuzenketarako orientabideak. Lan hartan xehero azaltzen da testuen zuzenketari dagokionez gauzan zertan diren; zehazki definitu eta deskribatu egiten dira zuzenketa irispideak eta aldi berean adibideak ere aurkezten dira testuak nola zuzendu eta ebaluatu behar diren argitzeko eta bai lan metodo bat proposatzen ere irakasle taldeek aurrera egin dezaten beren ikastetxeetan Lehen Hezkuntzako ikasleek idatzitako testuak zuzendu eta ebaluatzen irizpideen berdintze bidean.

Segur naiz material hauek baliagarriak izanen zaiela Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan –hain bokazio biziz- irakaslanean ari direnei eta lagungarri izanen zaiela zuzenketa irizpide berdintsuak partekatu eta aplikatzeko beren lanaren parte bat testu idatzien ebaluazio eta balorazio lanetan ematen dutenean.

Egokiera hau aprobetxatu nahi dut berriz animatzeko irakasleak segi dezaten gogoetan ikasle bakoitza prestatzeko hain garrantzi handia duen gai honen inguruan, bere ikasketa prozesuko urte erabakigarri hauetan. Eta eskertu nahi diet hainbeste irakaslek erakusten duten gaitasun irmoa beste irakasleekin beren aurkikunde didaktikoak eskuzabalki partekatzeko.

Alberto Catalán Higuera
Consejero de Educación

Aurkibidea

I.	Testu idatzien ebaluazioa eta zuzenketa.....	9
II.	Ebaluazio irizpideen deskribapena	27
III.	Testuen ebaluazioaren eta zuzenketaren adibideak	41
	A- 1. mailako testua	42
	B- 2. mailako testua	56
	C- 3. mailako testua	70
	D- 3.+ mailako testua	82
IV.	Testuen ebaluazio eta zuzenketa irizpideak bateratzeko metodologia	95
	Bibliografia.....	99

Eranskinak.....	101
-----------------	-----

I. Testu idatzien ebaluazioa eta zuzenketa

Hezkuntza Departamentuak Nafarroan onetsi duen *“ebaluazio diagnostiko zentsal”* ereduak hizkuntza gaitasunaren barrenean testu idatzien ekoizpena inplikatzeko duten atazak hartuko ditu etorkizunean. Erabaki honek aipatutako gaitasunak tresna mental gisa duen garrantziari erantzuten dio, bai bizitza akademikoan eta baita bizitza sozialean ere. Gure pentsamendu eta sentimenduak zuzentasunez eta eraginkortasunez idazten jakitea oinarritzeko ikasketen helburu bat da, irakurketarekin batera. Errealitate honek ez du bazter utzi behar hizkuntzaren ahozko dimentsioa lantzea, testuinguru formal nahiz informaletan. Gaitasun komunikatiboaren lau ardatzak hitz egiten, entzuten, irakurtzen eta idazten jakitea dira. Lau alderdi horiek elkar elikatzen dute eta ikasgeletan modu osagarrian landu behar dira.

Badakigu ikasleek diskurtso mental bat paperean jasotzeko duten gaitasuna baloratzea zaila dela. Lan konplexua da benetan eta, hori dela eta, epe motz, ertain eta luzerako planteamendua eskatzen du. Dena dela, bidea markatua dago, irakasle bakoitzak bere irizpideak eta ebaluatzeko moduak dituen planteamenduetatik beste planteamendu batera igaro nahi da, non hasieran ziklo mailan eta ondoren ikastetxe mailan irizpide eta moduak partekatuko diren. Epe ertain batean posible izanen da Nafarroako ikastetxe guztien arteko irizpideak partekatzea.

- *Ebaluazioa testu ekoizpena hobetzeko tresna da ikasleei, ikastetxeei eta oro har Nafarroako hezkuntza sistemari aplikatzeko modukoa.*
- *Zikloan, ikastetxean eta Nafarroan testuak baloratu eta zuzentzeko irizpideak eta moduak partekatzeak hobekuntza ildoak markatzen ditu.*

Une honetan ez da errealista Nafarroako emaitzak alderatzea, irizpide eta moduak asko aldatzen ahal direlako ikastetxe batetik bestera. Lortzen ahal den lehenbiziko helburua ebaluazioak ikastetxe irizpideekin egitea da, irizpide orokorretan oinarrituta. Horrela, hiru mailako eskala modu homogeneo eta fidagarrian aplikatuko da ikastetxe bakoitzean. Ikuskaritza zerbitzuak lagin-ikerketak erabilita txostenak ematen ahalko ditu ikastetxeek lan honetan duten adostasun mailari buruz.

Ikasleek idatzitako testuak ebaluatzeako arrazoi batzuk

Irakasle taldeen artean dabilen esaera batek horrela dio: *“ebaluatzen ez dena debaluatu egiten da”*. Horrelako zerbait gertatzen da praktikan. Ebaluazioak prestakuntzaren ikuspuntutik garrantzitsua den alderdi baten gain arreta modu iraunkorrean mantentzea ahalbidetzen du. Ikasle eta irakasleen motibaziorako balio du eta aipatutako bi talde hauek ebaluatutakoaren garrantzia partekatzeko balio du. Ikasleek idatzitako testuak ebaluatzeako arrazoi nagusiak zazpi dira:

➤ *Ahozkoak eta idatziak elkar indartzen dute.*

Hizkuntzaren bi erabilera handiak ahozko eta idatzizko dimentsioetan gauzatzen dira. Hizkuntza bera da, nahiz eta erabilpena eta erabilitako kodeak aldatzen ahal diren. Hizkuntzaren dimentsio idatzia lantzeak ahozkoatasuna garatzen laguntzen du, eta alderantziz. Hizkuntzaren berezitasunak ahaztu gabe, ezin da alde batera utzi beraien arteko harreman estua. Beraz, dimentsio idatzia baloratzean modu orokorrean hizkuntzaren erabilerari buruzko jarraibideak ematen ari dira. Ahozkoa eta idatzia, irakurmena eta idazketa bezala, ontzi komunikatuak dira (Victor Moreno).

➤ *Testu idatzien ebaluazioak logikoagoa, ordenatuagoa eta hobeki antolatua den adimena garatzen laguntzen du.*

Idazten ikastea pentsatzen eta hizkuntzaren bidez pentsamendua osatzen ikastea da. Ebaluazioaren bidez erreferente zehatzak lortzen dira hauen inguruan: ikasleak helburuak nola betetzen dituzten eta idazterakoan nolako zailtasunarekin aurkitzen diren. Irakurle heldu batek beste norbaitek idatzitako testu bat irakurtzen duenean informazio asko eskuratzen ahal du hizkuntza gaitasun horri buruz. Beraz, ez da testua ikuspuntu formal batetik soilik aztertu behar. Ikuspuntu guztietatik aztertu behar da: forma eta mamia.

- *Testu idatzien ebaluazioa ikastetxeetan gaitasun honen garapen mailaren irudia eskaintzen du: indargune eta ahuluneak erakusten ditu.*

Irakasleak, ebaluazioaren bidez, ikasleen idazteko moduari buruzko irudi orokor bat lortzen du. Testu idatzien ekoizpenarekin lotuta, landu diren helburuak ikasleek zein mailatan bereganatzen duten aztertzen ahal da. Ebaluazioa baliagarria da, batez ere, programazioa eta jarduerak hobeki doitzeko; gainera, jarraipen pertsonalizatuago bat egitea ahalbidetzen du.

- *Testuen ebaluazioak ikasleen arteko helburuak partekatzen laguntzen du.*

Ikastetxea erreferentzia elementu gisa hartzen duen ebaluazio diagnostikoaren ikuspuntua dela eta, testuen ebaluazioak irizpideak bateratzen laguntzen du ez soilik 4. mailako irakasleen artean, baizik eta etapako ikasle guztien artean. Irizpideak partekatzeak ez du soilik ebaluazioa koordinatzen laguntzen, baizik eta irakaskuntza batez ere.

Partekatzeak paperaren gaineko irizpide berak izatea baino gehiago adierazi nahi du, partekatzeak hitzak dituzten zentzuaz eta esanahiaz parte hartzea adierazi nahi du; irakasle taldeak ebaluazioaren irizpidearen azpian dauden kontzeptuak modu berean ulertzen dituztela adierazi nahi du.

- *Testuen ebaluazioak ikasle eta irakasleen arteko hiztegi komun bat sortzen du*

Garrantzitsua da irakasleek hiztegi eta kontzeptu berak erabiltzea, baina garrantzitsua da ere ikasleekin gauza bera egitea. Neurri handi batean hizkuntzari buruzko hausnarketa jarduera bat da; testu idatzien hizkuntza errealitatea aipatzea ahalbidetuko duen hiztegia partekatzeak berarekin dakar ukiezina den zerbaiti buruz modu zehatz batean hitz egitea. Logikoki gaitasuna hiztegi bat ezagutzea baino gehiago da, baina partekatutako hiztegiak testuei buruz hitz egiten laguntzen du, hauek aztertu eta hobetze aldera. Noski hiztegiaz ari garenean ez gara ari testuen gramatikaren terminologiari buruz. Etaparen oinarrizko hiztegiarekin ezin hobeki lortzen ahal da helburu hori.

- *Ebaluazio jarraitua eta ebaluazio diagnostikoa bateragarriak dira*

Testu idatzien ebaluazio jarraitua eta izaera batutzaileko ebaluazio diagnostikoa ez dira modu alternatiboan planteatu behar. Aitzitik, beren izaera osagarria ulertu behar da. Hala ere, garrantzitsua da bi ebaluazio mota horiek (edo hobeki esanda, ebaluazioaren uneak) ikuspuntu eta

ebaluazio irizpide mota berak erabilia egitea. Ebaluazioaren tresna garrantzitsuenetakoa bat da portfolioa. Alor honi aplikatuta irakasle eta ikasleei alderdi honetan denboran zehar izan diren hobekuntzez jabetzea ahalbidetuko die.

► *Idazketa arlo eta irakasle guztien lana*

Idazketa curriculumaren arlo eta eskola nahiz eskolaz kanpoko jarduera guztietan praktikatu beharreko gaitasuna da. Beraz, ez dugu ulertu behar idazketa lanak hizkuntza klasean kontakizunak idaztera mugatzen direla. Helburua ez da testu motak arloekin lotzea (adibidez: narrazioak, Hizkuntza arloa; azalpen-testuak, Ingurunearen ezagutzaren arloa; ikaste-testuak, Atzerriko hizkuntzaren arloa, etab.), kontrakoa baizik, arlo guztietan testu idatzi mota desberdinak lantzen ahal dira.

Testu idatzien ekoizpena ebaluatzeko arrazoiak

1. Ahozkoa eta idatzia indartzen dira ebaluazioaren bidez.
2. Pentsamendua hobeki antolatzen laguntzen du (ikasten ikastea).
3. Ikasgela eta ikastetxe baten ahuleziak eta indar-guneak islatzen ditu.
4. Irakasleen artean idazketari buruzko helburuak partekatzen laguntzen du.
5. Irakasle eta ikasleen arteko hiztegi komun bat erabiltzea ahalbidetzen du.
6. Ikuspuntu diagnostikoarekin ebaluazioa jarraitua indartzen da ere (portfolioa).
7. Idazketa indartzen da arlo guztietan.

Posible da testu idatziak modu objektiboz ebaluatu eta zuzentzea?

Bi dira irakasleak ohiko moduan ikasleen lanak baloratu eta zuzendu behar dituenegandik egiten dituen lanak. Alde batetik “algoritmiko” motakoak daude, erantzun zuzen bakarra dutenak. Pentsa dezagun, adibidez, batuketa edo problema bat zuzendu behar izatea. Kasu horretan soluzio zuzen batera eramanez duten urratsak jarraitu ote dituen aztertuko da. Egoera horiek (ikasgelen eguneroko bizitzak askotan ematen direnak) ez dute zailtasunik sortzen zuzentzailearendako. Irizpideak bakarrak dira, irakasle guztiek partekatuak, eta zuzentzailea edozein izanda ere emaitzak antzekoak izaten dira.

Dena den, beste lan batzuk bestelako ikuspuntua eskatzen dute ebaluazioa egiterakoan. Pentsa dezagun, adibidez, hurrengo hauei buruzko ebaluaketan: marrazki batena, bizitzaren egoera errealei buruzko arrazoiketa batena, edo alde aurretik ikasgelan landutako ezagutzak aplikatuta, nola egiten lukeen pertsona batek arazoa ebazteko. Askotan aipatzen da irakasle bakoitzak bere irizpide propioa duela: “niri koadroa ongi dagoela iruditzen zait”; “nire ustez ikasle honek duen arrazoitze modua onargarria da”, etab. Hala ere, zaila da komunean jartzea balio-judizio horiek justifikatzen dituzten arrazoiak.

Ikasgelan egiten diren ataza mota batzuk erraz ebaluatzen diren bitartean, beste batzuk, beren izaera dela eta, ebaluatzeko zailak dira.

Ataza hauetako asko irekiak dira; hau da, ikuspuntuaren arabera konponbide desberdinak onartzen dituzte. Beste batzuetan ebaluatzen den arazoari buruzko pertzepzioaren eredu edo ideia mendekoa da. Eredu desberdinek ebaluatzeko modu desberdinak sortzen dituzte. Testu idatziaren ebaluazioa bigarren ataza mota honi dagokio. Zailtasuna ez datza ebaluatzeko “metodoa” ez ezagutzean, baizik eta ataza beraren konplexutasunean.

Batzuetan sistema praktikoa bat eskatzen da prestakuntza iraunkorreko ikastaroetan, edo aholkularitza jardueretan (tamalez gure eskuetara iritsi ez den sistema hori badela pentsatuz). Honek guztiak itxaropena sortzen du, sarritan zapuzten dena, idazteko lana eta idatzitakoa ebaluatzeko oso zailak direlako halaberharrez; ez dago bidezidorririk edo prozedura laburturik, ebaluatze lanaren gaineko erredukzionismoan erori nahi ez bada.

Mundu guztiak onartzen du idazteko lana zaila dela, baina idazketa ebaluatzeak lanak badu bere zailtasuna ere. Ez dago lan hau erraztuko duen bidezidorrik edo prozedura laburturik.

Dena dela, lana sistematizatzen ahal da, balorazio objektiboagoak eta fidagarriagoak lortzeko egokitzen ahal den metodologia esplizitu bat adierazi eta segurtasuna ematen duten bidexketatik eramanez.

Posible da testu idatzi bat hautemate orokor baten bidez ebaluatzea?

Hain zuzen ere, testua irakurtzeak zuzentzailean sortzen duen inpresioari jarraiki posible da testu bat ebaluatzea eta baita sailkatzea ere. Lan hauetan esperientzia handiko irakasleek zuzenketak bi ikuspunturekin egiten dituztenean azkeneko emaitzetan bat etortzen dira, zuzenketa modu orokorrean edo analitikoagoan eginda. Ondoren ikuspuntu honen mugak azaltzen dira, alde batetik “irakaslearen esperientzia” aldagaiari erreparatuz eta bestetik ikuspuntuari.

- *Irakasleen esperientzia ebaluazioaren kalitate eta fidagarritasunaren baldintzatzaile gisa.*

Testuinguru honetan esperientzia ez da ulertu behar ikasleen ekoizpena baloratzen duen irakaslearen irakaskuntza urteen kopuruaren arabera. Aitzitik, lan espezifiko hori egiteak esperientziari gehiago dagokio (irakaskuntzarako ikasketa sortzen duena): ikasleek testu idatziak baloratzea. Lan honek berekin dakar ikasleek idatzitako testu on baten gisa ulertzen denaren ikuskera inplizitua.

Adibidez, irakasle batek uste baldin badu testu bat baloratzeko garrantzitsuena dela testuaren alderdi formalak kontuan izatea (ortografia, aurkezpena, txukuntasuna, etab.) honez gain sortzeko gaitasun pertsonalaren alderdiak kontuan hartzen dituen beste irakasle batekin alderatuta desberdin baloratuko du; eta, ziur aski, alderdi hauez gain idazkiaren ezaugarri testualekin zerikusia duten alderdiak (koherentzia, kohesioa, egokitzapena, etab.) kontuan hartuko dituen hirugarren irakasle baten baloraziotik desberdina izanen da. Zentzu honetan, esperientziak zuzentzaileak inplizituki duen eredia finkatzen du.

Beharrezkoa da ikasleen testuak baloratu baino lehen ongi idatzitako testu bat zer den hausnartzea.

- *Ikuspuntu honen abantailak eta mugak*

Ebaluatzeko modu honek badu abantaila handi bat: lastertasuna. Artista batek arte lan bat behatzen duenean balorazio egokiak egiten ahal ditu, balio-judizio mota horiek egiteko gaitzen duten prestakuntza eta sentiberatasuna dituelako. Antzeko egoera gertatzen da testu idatzi baten balorazioaren kasuan. Hala ere, kontuan izan behar da batez ere ebaluatzailearen gaitasunaren mende dagoen sistema bat dela. Subjektuaren buruko barne jarduera da, ez da publikoa; beraz, nekez alderatzen ahal dira ebaluatzaile desberdinek egindako balorazioak.

Komenigarria da balorazioak irizpide publikoekin bat egitea eta ebaluatzaileak bere ebaluazioa justifikatu eta argudiatu ahal izatea.

Gaitasun honen aurrerabidea etapa honetan mantso garatzen denez, (idazleek bizi osoan zehar garatzen dela esanzen lukete), beharrezkoa da irakasleek ongi idatzitako testu baten ezaugarriak ulertzeko modu bera partekatzea. Batzutan oso orokorrak diren enuntziatuak esanahiak partekatzearen inpresioa ematen ahal dute; hala ere gerta liteke esanahi orokorrak partekatuta oso eredu desberdinak mantentzen jarraitzea. Testu idatziak baloratzeko lanean batera jartzea aukera bikaina da ideiak partekatu ahal izateko eta elkar aberasteko.

Hobe da testu idatziak irizpide esplizituekin zuzentzea?

“Irizpide” hitza “epaitu” aditzaren adierekin harremana duen grezierazko hitz batetik dator. Beraz, “irizpideak” erabiltzea errealitatearen alderdiren bati buruz balio-judizioak emateko laguntza edo pautarekin harremana du. Gure kasuan irizpideak testu idatzi bat baloratzeko ahalbidetzen diguten hizkuntza enuntziatuak dira.

- *Ebaluazio irizpideak erakutsi-ikasi-ebalatu prozesuan*

Orden logiko bati jarraiki, ebaluazio irizpideak agertu behar dute irakaskuntza-ikasketa prozesua ixten denean. Ez da ebaluatu behar irakatsi ez den hori. Testu ekoizpenaren irakaskuntza programazio bat, jarduera espezifiko batzuk eta berezko metodologia bat eskatzen du. Idatziz ikasten

da idazten, baina ez da soilik “kantitate” arazoa, arauen, prozeduren eta idazteko estrategien irakaskuntza esplizituaren arazoa ere bada. Beraz, harreman hurbil bat egon behar du lortu nahi diren helburuen eta ikasketa-irakaskuntzaren ondorioak baloratzeko irizpideen artean.

Ebaluazio irizpideetan pentsatu baino lehen testu idatzien ekoizpenaren helburu, jarduera, metodologia eta estrategiaei buruz hausnartu behar da.

Gaitasun mota hauetan, ikasleek kode idatzia menderatzen dutenean bere kasa idazteko gai dira. Berez, maila batean bere kasa garatzen den gaitasuna da (arrazoibidearekin, ahozko eta idatzizko hizkuntza ulertzeko ahalmenarekin eta abarrekin gertatzen den bezala) ikasleen garapen psikologiko eta kognitiboari lotuta dagoelako. Dena dela, irakaskuntza espliziturik ezean nekez garatzen ahalko dute ikasleek gaitasun hori.

Pentsatu, adibidez, adierazpen-testu bati buruzko ebaluazio irizpide honetan: *“testuak arazoaren azalpen bat du, garapena eta azkenik ondorioa”*. Ikasgelan egitura hau landu ez bada ikasleen idatzi ugari ez dute lortuko ebaluazio irizpide hori gaingaitzea.

Gauza bera gertatzen da, adibidez, testu bat paragrafotan antolatzen erakutsi ez bada. Kasu horretan ezinezkoa da irizpidea baloratzea: *“testua paragrafotan antolatzen da”*. Ikasle batek nekez antolatzen ahalko du testu bat paragrafotan aldezturik hori egitea erakutsi ez bazaio.

- *Erabili behar diren irizpideen entitatea eta kalitatea*

Zein irizpide erabili behar diren erabakitzea lan zaila da beti. Irakaskuntzan erabili ohi diren irizpideetako batzuk eta programazioa eta ebaluazioaren irakasle lanaren baita daudenak, besteak beste: *“modu zuzenean idaztea ikuspuntu ortografiko batetik”*; edo beste irizpide hau: *“modu original eta sortzailean idaztea”*, besteak beste. Hala ere, badira batzuk “testu-gramatika”-tik eratorritako ezagutzarekin harreman handiagoa dutenak, bere baitan garrantzi gutxiagoko unitateak (esaldiak, hitzak...) dituen testua azterketa entitate orokor gisa hartzen dutenak. Ikuspuntu honek testu bat zer den ulertzeko modua eta ikus moldea aberastu ditu, esaldien mailatik haratago. Beraz, logikoa da irizpideak kontuan hartzea testuen ezaugarriei buruzko dimentsioak eta beste batzuk, esaldien mailakoak, eta baita lexikalak ere.

Idazki bat aztertzerakoan kontuan izan behar dira testualitatearen irizpideak, besteak beste: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, zuzentasuna, baliabide eta estilo aberastasuna, etab.

Ebaluazioan erabiltzen diren irizpideen arabera irakasleen artean indarra duen eredu inplizitua ondorioztatzen ahal da.

- *Irizpideen esanahia agerian jarri eta partekatzeko beharra.*

Gaitasun horien garapena ikastetxearen planteamendu orokorraren mende dagoenez, ikasle zehatz baten ikuspuntutik baino, beharrezkoa da irizpide horiek agerian jartzea eta partekatzea. Irakasle bakan baten jardueraren eraginkortasuna zalantzazkoa izanen da taldearen planteamendu koherenterik gabe.

Une honetan ikastetxeak testu idatziak baloratu eta zuzentzerakoan irizpide komunak eta partekatuak izatea lortu nahi da. Bigarren une batean desiragarria litzateke ikastetxe guztiak eredu partekatu baterantz joatea

Gutxienez “zuzentasunari” buruzko irizpideak sartu beharko dira. Testu oro zuzentasunez idatzia egon beharko du: ortografia, arau morfosintaktikoekiko errespetua, etab. Mota honetako irizpideak beharrezkoak dira baina ez dira aski. Gerta liteke testu bat arestian esandakoa bete arren ongi antolatua ez egotea, orden logiko bati ez jarraitzea, jauziak ematea, laburbilduz, testuaren koherentziarekin zerikusia duten akatsak izatea.

Idazleak ere errespetatu behar ditu testu batek “*barne koherentzia*” izatea ahalbidetzen duten arauak (izenordainen erabilpen egokia, barne eta kanpo erreferentzia mekanismoen erabilera, etab.); ikaslea, gainera, idazteko lanaren atazari eta helburuari egokitu behar zaio. Zer lortu nahi da testuarekin?: istorio bat kontatzea?, azalpen bat ematea?, argudioak ematea eta irakurlea konbentzitzea?

Irakurketaren helburuaz gain, idazleak hartzailea izan behar du buruan, hau da, irakurlea: norendako idazten du?, erregistro jaso bat erabili behar du edo informalagoa den bat? Testu bat idatzi nahi bada galdera horiek guztiak hartu behar dira kontuan. Azkenik, kontuan hartuko dira ere berezko estiloarekin, sortzeko ahalmenarekin eta abarrekin zerikusia duten irizpideak.

Testu bat aztertzeiko ikuspegi desberdinetatik begiratu behar zaio, ez soilik ikuspegi bakar batetik. Osagarri diren lau ikuspegi proposatzen dira:

- a) Testu idatziaren zuzentasun formala*
- b) Koherentzia eta kohesioa testuaren ezaugarri gisa*
- c) Helburuari eta idazketaren egoerari egokitzapena*
- d) Sortzeko ahalmena, estiloa eta erabilitako baliabideak*

Lau ikuspegi edo alderdi hauek harreman estua dute elkarren artean, aurretik azaldu dugun moduan, teorikoki testu batek alderdi batean puntuazio handia lortzea eta baxua beste batean gerta litekeen arren ohikoena da korrelazio handia egotea alderdi horien artean.

Orduan, zer dela eta lau alderdi horiek aztertzeiko beharra? Estatistikoki fenomeno hori izan arren komeni da analitikoagoa den planteamendu bat izatea, testu idatziaren kalitateari buruzko ideia egokiagoa ematen duelako, eta batez ere gehiago landu behar diren alderdiei buruz informazioa ematen duelako. Irakasle batek bere ikasleen testuen hobekuntza landu nahi badu informazio egokia lortzen ahalko du ikuspuntu analitiko honetatik.

- *Beharrezkoa da alderdi horiek zehaztea eta ebaluazio adierazle operatiboak ezartzea*

Zer hartu behar da kontuan testu baten zuzentasuna, koherentzia, kohesioa, egokitasuna eta baliabide aberastasuna baloratzeko? Komeni da baldintza batzuk beteko dituen adierazle sorta bat ondorioztatzea.

Ebaluazioaren adierazleak horrelakoak izan behar dute:

- a) Garrantzitsuak*
- b) Anbiguotasun gutxikoak*
- c) Erraz behatzen ahal direnak*
- d) Errealistak*
- e) Ikasleen adinera egokituak*

a) *Adierazleen garrantzia*

Adierazle asko ezartzen ahal dira, baina ez dira garrantzi berekoak arestian aipatu ditugun alderdiak baloratzerakoan. Adibidez, “*ortografiari*” dagokionez irizpide desberdin ugari erabiltzen ahal dira, dena dela hurrengo lau hauetan alderdi garrantzitsuenak jaso dira: a) hitzak ongi banatzen dituen aztertzea, b) oinarritzko hiztegia modu zuzenean idazten ote duen, c) letra larriak erabiltzeko irizpideak aplikatzen ote dituen, d) H, TS, TZ eta TX zuzen erabiltzen ote dituen.

Irizpide taula zehaztea ikastetxean egin beharreko baterako lana da. Proposamen desberdinetatik eta alde zuzeneko analisi eta azterketatik abiatuta irakasle taldeak irizpide taula bat aukeratu, egokitu edo propio prestatu beharko du. Orokorrean urtetik urtera hobetuz joan da.

b) *Adierazleen anbiguitasuna saihestea*

Adierazleak modu argian eta adiera bakar batekin adierazi beharko dira. Dena dela, giza hizkuntzaren ezaugarria da zalantzazkoa izatea. Ikusi ditugun puntuazioari dagozkion adierazleen bi adibide; lehenengo adierazleak: “*komak erabiltzen ditu*”, bigarren adierazleak, aldiz: “*subjektuaren eta predikatuaren artean komarik ez*”. Bigarren adierazle hau lehenengoa baino argiagoa da, espezifikagoa delako. Hala ere, ez litza-teke komenigarria izanen lehenengo motako adierazleak alde batera uztea, bigarren motakoak bezain zehatzak eta espezifikoak ez izan arren.

Aurrekoarekin kontrajarrita, adierazle batzuk orokorregiak dira; adibidez hurrengoa: “*puntuazio-markak modu zuzenean jarri*”. Gehiago zehaztea komeni da; adibidez: “*perpausak puntuarekin bereizi*”; “*komaren bat erabili*”; “*subjektu eta predikatuaren arteko komarik ez*”. Hiru adierazle horiek oso orokorra den “*puntuazio-markak modu zuzenean jarri*” baina zehatzagoak dira, ñabardura eta aukera guztiak jaso ez arren, adin horretan puntuazioaren hiru mugarri garrantzitsuenei erreparatzen die.

c) *Adierazleek erraz atzematen diren testuaren alderdiei buruzkoak izan beharko dute*

Idazki bat koherentea dela esaten dugunean bere ezaugarri garrantzitsu bat aipatzen ari gara, baina testu batean nekez antzematen ahal dena; gehiago da zuzentzaileak ateratzen duen ondorioa testuaren alderdi batzuei jarraiki, adibidez, irakurtzerakoan norberak zentzu orokor bat atzemateko gai denean, egitura argi bat, testuaren baitan jauzirik ez bada, bestelako alderdien artean. Behaketa horietatik abiatuta ebaluat-

zaileak testua modu koherentean idatzia ote dagoen ondorioztatzen ahalko du.

d) *Errealismoa adierazleen kopuruan*

Zuzentzaileari sortzen zaion zalantza izaten da zenbat adierazle erabili behar diren ebaluatzea. Gutxi erabiliz gero, testu idatziaren kalitatearen ikuspegi sinplea izanen du; alderantziz, adierazle asko erabiliz gero, testuaren osotasunaz jabetzen ahalko da, baina zuzenketa bakoitzerako denbora asko eman beharko du, beraz, ez da planteamendu errealista bat.

Aurreko zalantzaren ikuspegi doituagoa izateko komeni da bi une bereiztea: ikasteko aldia, taldearen irizpideak bateratzea eta zuzenketa orokorraren aldia. Lehenengoan testu bakoitza aztertzeko aukeratu diren adierazleak hurbilagotik jarraitzea komeni da. Pixkanaka “paperean” dauden adierazle horiek tokia aurkitzen dute buruan eta ez da beharrezkoa adierazle bakoitza banaka puntuatzea betetzen direla ziurtatzeko; zuzentzailea geldituko da arrazoizkoa den zalantza bat duenean soilik. Beraz, teorian oso zaila ematen duena praktikan erraztu egiten da horregatik zuzentasunean kalitatea galdu gabe.

e) *Adierazleak ikasleen adinera egokitu behar dira*

Ez da gauza bera Batxilergoko ikasle batek edo Lehen Hezkuntzako ikasle batek idatzitako testu bat zuzentzea, termino berak erabili arren, aipatzen dituzten errealitateak oso desberdinak direlako. Pentsa dezagun, adibidez, koherentziarekin lotura duen adierazle honetan: *“testuaren zatien artean jauzirik ez”*. Irizpide hau lehenengo kasuari edo bigarrenari aplikatuz gero, zehaztasun maila desberdina izanen luke. Hori dela eta, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleei adierazle hori aplikatzerakoan zertaz ari garen jakiteko, adibidez, ebazteko modu praktikoa bat kasu negatibo eta positiboak hautatzea da. Horrela edozein zuzentzailek adin jakin batean irizpidea nola aplikatu behar diren ikusi ahal izanen du.

Laburbilduz: *testu idatziaren alderdi garrantzitsuei erreparatzen dieten alderdiak aukeratu behar dira. Testuak zuzentzaileek adiera bakarraz ulertu ahal izateko moduan egon behar dute idatziak. Praktikarekin barneratu behar dira. Testu errealetatik ateratako adierazlearen adibide positibo eta negatiboak izatea komeni da.*

Testu idatzien ebaluazioan kuantifikatu edo ez?

Galdera honi erantzuterakoan bi joera daude. Irakasle batzuk nahiago dute “sareta” edo “ebaluazio orri” batekin baloratzea, eta bertan jasotzen dute erabiltzen diren irizpideak betetzen ari diren edo ez. Azkenean, irizpide multzoa kontuan hartuta, eman behar duten mailari buruzko erabaki orokorra hartzen dute: ez da eskatutako mailara iristen; zalantzak daude; eskatzen den maila badu, argi.

Beste ikasle batzuek nahiago dute kuantifikazioaren laguntza duen sistema bat. Sistema ia bera da, desberdintasun bakarra da irizpide bakoitza puntuatzen dutela: betetzen bada, bi puntu, zalantza kasuan puntu bakarra, eta irizpidea betetzen ez bada puntu bakar bat ere ez. Azkenean batuketa egiten da eta taula batekin alderatzen da, ikasleak duen maila erabakitzeko. Lan dokumentu honetan ikuspuntu hori onartu da ikastetxean irizpideen prestakuntza eta bateratze eperako interesgarria izaten ahal delako, nahiz eta ondoren ikastetxera eta dagoen denborara sinpletzen eta egokitzen ahal den.

Numerikoki kalkulatzeko erabiltzen diren taulek ez diete erantzuten ikerketa lanei ezta azterlan teorikoei ere. Kuantifikazio irizpide batzuk justifikatuko lituzkeen *“korpus teoriko edo enpirikorik”* ez dago. Errealitate honen aurrean Lehen eta Bigarren Hezkuntzako euskarazko eta gaztelaniazko irakasle, aholkulari eta teknikarien arteko “on-line” lan talde murriztu batek lortutako adostasunaren alde egin da, hala nola Nafarroan alde zuzenetik egindako kanpo ebaluazioen esperientzien alde. Beraz, erreferente gisa erabiltzen ahalko da ikerketan teorikoki oinarritutako proposamenak izan arte. Ebaluazio Atalak heldu den urteetan landuko du ikuspuntu hau.

Hurrengo koadroan ikusten ahal da testu idatzien ekoizpen baten kalitatea baloratzeko kontuan hartzen diren alderdi desberdinen ponderazioa.

Plangintza	10%
Zuzentasuna	35%
Koherentzia eta kohesioa.....	35%
Egokitasuna eta baliabideen aberastasuna	20%

Zenbat adierazle erabili lau alderdi hauetako bakoitzean?

Alderdi hauek baloratzeko zenbait adierazle erabili behar dira. Proposamen errealista eta bideragarria izanen da. Adierazle asko sartuz gero, zuzentzeko lana aspergarria eta ezinezkoa da; adierazle bakarra erabiliz gero, arrisku da zuzenketa subjektibo eta zuzentzaile bat baino gehiagoren artean konparatu ezina egiteko; horregatik hautatzen den adierazle kopuruak egokia izan behar du: adierazle ardurakoak, esanguratsuak eta zuzentze lana gehiegi konplikatzeko ez dutenak. Hautatze lan hori irakasle taldeek egin behar dute, ikastetxe bakoitzean. Liburu honetan erabil daitezkeen adierazle guzti-guztiak aurkezten badira ere, eta ematen diren adibideetan den-denak aplikatzen badira ere, horrek ez du esan nahi planteamendu exhaustibo hori beti erabili behar denik. Interesgarria litzateke material hau lehenbiziko fase batean prestakuntza eta koordinazio jardueratzat erabiltzea, aurrerakoan irizpide komunak eta bateratuak izateko ikastetxerako komeni den adierazle sorta hautatzerakoan.

Testu idatzien ebaluatzailearen dekalogo

Testuen zuzenketa, beste edozein irakaskuntza jarduera bezala, jarduera hau egiten den bitartean kontuan izan behar diren hezkuntza printzipio sorta batean oinarritu behar da. Printzipio hauek Aristotelesek *“zuhurtziaren”* eremua hartu izan zuen esparruan daude. Ez ditu ondorio hertsiki teknikoak, baina bai praktikoak. Irakasleak lan horren hezkuntza zentzuaren inguruan hausnartzea lortu nahi dute, eta, honen zentzua modu pertsonalean aurkitzen laguntzea, batzuetan ohitura gisa egiten ahal dena. Formula sofistikatuak aplikatuz ebatzen den jarduera hertsiki teknikoa ez denez, ebaluatzailearen jarrera pertsonalak garrantzitsuak dira irakaskuntza lan honen emaitzetarako.

Dekalogo honetan ez dira sartzen ebaluazioaren printzipio orokorrak, besteak beste zintzotasuna, justizia eta objektibotasuna bezalakoak. Printzipio orokor hauek lan zehatz honetan nola aplikatzen ahal diren lortu nahi izan da.

Dekalogo hau zentzuzkoak diren *“praktika egokien”* transkripzioa besterik ez da. Ez dakar testu idatzia zuzendu eta baloratzeari buruzko sofistikazio teorikorik ezta hausnarketa sakonik ere. Oroigarri papera bete nahi du elkarrekin eta modu esplizituan aurkeztean.

Dekalogoaren hamar puntuak aurkezteko hurrenkera hurrengo hau da: lehendabizi jarrerarekin zerikusi handiena dutenak jarri dira eta ondoren

izaera arrazional eta logikoagoa dutenak. Hona hemen hamar puntu horiek iruzkin xume batez lagunduak:

a) Zure ikasleak idatzitako testua aintzat hartu

Pertsonok, edozein arrazoi dela eta, testu bat idazten dugunean, bertan islatzen ditugu gure pentsatzeko eta errealitatea ikusteko modua, gure afektu eta pertzepzioak. Arestian esandakoa helduei, haurrei nahiz nerabeei aplikatzen ahal zaie. Gogoeta hori edozein motako testu idatziei dagokie, testu narratibo nahiz argudiozko testuei edo beste edozein motatakoiei.

Zuzentzaile zaren heinean, egile ezezagun batek idatzitako lerro batzuk baino gehiago dituzu aurrean. Testu bakoitzaren atzean ahal den hobekien idazten saiatu den ikasle bat dago, adierazi nahi izan duenaren eta eskura dituen baliabide linguistiko eta kognitiboen arteko tentsioa gaindituz.

b) Hoberena azpimarratu ahultasunak estali gabe

Zuzentzaileak testu idatzi bat irakurtzen hasi eta nahasia dela uste duenean, edo letra ulertzeko zailtasunak dituean, testuaren irakurketa eta balorazioa kutsatuko duen jarrera garatuko du inkontzienteki. Hori dela eta, testuaren lehenengo irakurketaren xedea idazkiaren alderdi positiboak aurkitzea da, asko edo gutxi izan, garrantzitsuak edo garrantzirik gabekoak. Bigarren irakurketan ikuspuntu kritikoago bat erabiltzen ahal da. Bigarren une honetan ahultasunak agerian geratzen dira, baina beti indarguneen baitan.

Aurrekoak ez du esan nahi zuzenketa eta balorazioa biguna eta eskuzabala izan behar denik. Ikuspuntu horrek guztiz baliorik gabe utziko lukeelako ebaluazioaren efektua.

c) Zalantza izanez gero, beti ikaslearen alde

Irizpide eta adierazleak aplikatzen direnean batzuetan zalantzak sortzen dira, lan mota hauetan gauza logikoa eta arrunta. Komeni da hausnartzea eta erabakia hartzea ikuspuntu teknikoei jarraiki; dena dela, zalantzak jarraituz gero zentzuzkoa da ikaslearen alde egitea.

Kasu horietan gogoan hartu ezazu, eta maiz gertatzen bada irizpide eta adierazleen analisisian sakontzea komeniko litzateke, horiek argitu eta adiera bakarrez aplikazioa sustatuz.

d) Testuari balore osagarriak ez eman

“Ospe” efektua kontzienteki kontrolatzen ez bada beti egonen da testu idatziez egiten ditugun gure ebaluazio eta zuzenketetan. Testuaren egile den ikaslearekiko aurretik dugun joerak idazkiaren kalitatea hautematea baldintzatzen du. Irizpideak alderatzea, eta zalantzarik izanez gero baita zuzenketa independente bat egitea ere prozedura ona izan ohi da. Zuzenketa gurutzatuak (irakasle batek irakasten ez duen beste ikasgela bateko ikasleak aztertu eta zuzentzen ditu) muga hau gainditzen ahal du. Dena dela, irakasleak berak bere ikasleak zuzentzen baditu ere, une oro efektu honetaz kontziente izateak “ospe” efektua kontrolatzea dakar. Kontuan hartu beharrezkoa da ere, zuzenketa gurutzatuaren kasuan, irakasleak berak egindako zuzenketarekin batera doazen balio garrantzitsuak galtzen direla.

e) Saihestu arinegi ibiltzea

Testu bakoitzari denbora bera ematen saiatu. Horrela arinegi ibiltzea saihestuko da. Horietako bakoitzaren zuzenketarako beharrezkoa den denbora hartu. Idazki bakoitzaren balorazio eta zuzenketarako bi irakurketa lasai egitea komeni da. Lehendabizikoan zuzentzaileak testuaren ideia orokor bat egiten du. Bigarrenean ikuspuntu analitikoari gehiago erreparatuko zaio eta irizpideak aplikatuko dira. Ez da komeni iritzia ematea bigarren irakurketa bukatu arte, lehendabiziko irakurketa eta gero iritzia ematen bada (buruz bada ere), lehendabiziko irakurketak bigarrenaren irakurketa guztiz baldintzatuko duelako.

f) Ez nahasi testuaren zati bat testuaren osotasunarekin

Testu idatzi bat baloratzeko orduan irizpide desberdinak hartu behar dira kontuan, talde bakoitzak puntuazio osoan duen garrantzia haztatuz. Idazkiaren kalifikazioa alderdi batzuk soilik kontutan hartuz eta beste batzuk alde batera utzita egiten bada zati bat osotasunarekin nahastuko da.

Arrisku hori sortzen da, adibidez, testu bat aztertzen bada soilik sortzeko ahalmenari erreparatuz eta gainontzeko alderdiak alde batera utziz.

g) Gaintitu zalantzari beldurra

Testu bat lau kategorietan sartzeari lortzen bada (1. maila, 2. maila, 3. maila, 3+ maila) irizpide eta adierazle desberdinekin bat aztertuz, horietako bakoitzean erabaki partzialak hartuko dira. Erabaki horiek batzuetan oso agerikoak izaten ahal dira eta beste batzuetan ez horrenbeste.

Komeni da bi muturretatik alde egitea: alde batetik, iritzia emateko arintasuna, eta bestetik, irizpidean ezarritako baldintza betetzen ote duen erabakitzeke denbora gehiegi ematea.

Egoera honetatik ateratzeko gainontzeko testuetarako erreferentzia gisa hartuko den irizpidea zehazten ahal da testu zehatzak aukeratuz. Pent-satu, adibidez, testuaren koherentziari buruzko *“testuaren zentzu orokorra”* irizpidean. Puntu honi dagokionez zer eskatzen ahal zaio Lehen Hezkuntzako 4. mailako testu bati? Gai honen inguruan teorikoki hausnartu baino lehen, batzuetan hobe da adibide zehatzak aurkitzea baldintza hau betetzen duten ikasleen testuen artean. Batzuk aukeratu ondoren gainontzeko testuetarako erreferentzia gisa balioko dute.

h) Alde egin erdigune erosotik

Mota hauetako ebaluazioen artean ohikoa da gisa honetako jokabideak azaleratzea. Puntuazioaren muturrak ezabatu egiten dira (oso kasu gutxik erakusten dituzten muturrak modu garbian) eta ondoren eremu ertain zabal bat ezartzen da; bertan aztertutako testuen ehuneko handi bat sartzen da.

“Hiztegi anitzaren” erabilpenari dagokion hurrengo adierazlea ikusi. Hain zuzen ere, testu zehatz bat zuzentzen ari garenean bihotzak bi muturren artean dagoela erabakitzea eramaten gaitu: oso hiztegi aberatsa, alde batetik eta oso hiztegi pobrea bestetik. Hori dela eta, komeni da, aurreko puntuan bezalaxe, adibide praktikoak aurkitzea 4. mailako ikasleendako hiztegi anitz bat zer den erakusten duten testuen artean.

i) Zenbakiak segurtasuna ematen dute baina ez dute objektibotasuna bermatzen

Interpretatzen ahal diren irizpideetan oinarritutako alderdiak kuantifikatzen direnean gerta liteke une batean erreferentzia galtzea, eta hori da hain zuzen gertatzen ari dena. Testu idatzi batean zerikusia duten aldagaien aniztasun aberatsa mugatu nahi da irizpide komunekin kategorizatzen saiatuz. Horretarako zenbakiak erabiltzen dira, baliabide huts gisa. Zuzentzailea saiatu behar da hausnarketa hau kontuan izaten eta pentsatu behar du alderdiren bat kuantifikatzen duenean objektibotasunaren baldintza dagoeneko bete duela.

Hausnarketa honek ez ditu bertan behera utzi nahi irizpide eta adierazleen kuantifikazioan oinarritzen diren ikuspuntuak, zuzenketa baliabide bati arrazoitutako balio-judizioak emateari baino garrantzia handiagoa ematearen arriskua soilik adierazi nahi du.

j) Zuzenketan ikasteko jarrera erakutsi

Testuen balorazioa eta zuzenketa aukera ona da idazleen idazteko moduaz ikasteko. Ohikeriako jarrera hartu beharrean jakin-mina eta ikasleak hobeki ezagutzeko gogoia izanez gero, posible da lana praktikan prestakuntza jarduera bat bezala hartzea. Taldean eginez gero efektua biderkatzen da.

Taldearen akats nagusiak behar den hurrenkeran orrialde batean jasotzeko gai bazara (bai norbanako gisa edo bai talde gisa, lana egin den moduaren arabera), orduan ondorioztatzen ahal da zuzenketan erabilitako ikuspuntua prestakuntzakoa izan dela. Logikoki prestakuntzaren ikuspuntu honetatik erraza da ebaluazioa programazioarekin eta etengabeko hobekuntzan oinarritutako irakaskuntzarekin lotzea.

II. Ebaluazio irizpideen deskribapena

Atal honek bere baitan hartzen du Lehen Hezkuntzako ikasleek idatzitako testu bat baloratzeko orduan kontutan hartzen ahal diren irizpideen deskribapena. Laugarren kurtsoko testuinguruan kokatuta daude, baina beharrezkoak diren egokitzapenekin etapako ziklo guztietarako baliagarri izaten ahal dira. Adierazleak aipatzen dira eta hauetako bakoitzaren esanahia argitzeko saioa egiten da informazio praktikoa erabiliz.

Material honekin lortu nahi den helburua da laguntza eskaintzea taldean lan egin nahi duten irakasleei ikasleen ekoizpen idatziak baloratzekoan homogeneousatzea lortzeko. Oso planteamendu zorrotza egiten da ikastetxeek beren testuinguruetan beharrezkoak diren egokitzapenak egin ditzaten. Beraz, laguntza eta hausnarketarako material bat da, hurrengo kapituluarekin osatzen dena, eta ikasleen benetako testuen adibideak dakar. Kapitulu horretan testu errealei aplikatutako irizpideak daude ikusgai.

Hurrengo taulan testu idatziak zuzentzeko erabiltzen ahal diren ebaluazio irizpideen zerrenda azaltzen da. Taula honek ebaluazio irizpide horien ikuspegi orokorra aurkeztu nahi du hamar ataletan antolatua. Zerrenda oso hau sinplifikatzen ahal da eta eraginkorragoa egin ebaluazio diagnostikoan ikasleen testuak zuzendu ahal izateko. Dena dela, aholkatzen da aldez aurreko prestakuntza eta koordinazio aldia ikuspuntu zorrotz honekin hastea, horrela irakasle guztiek erabilitako kontzeptuak modu berean ulertu ditzaten.

EBALUAZIO IRIZPIDEEN TAULA

I. PLANIFIKAZIOA	1. Planifikazioa	a) Ideiak eta edukia antolatzeko eskema bat erabiltzen du
		b) Planifikazioan ideien aberastasuna ikusten da
		c) Ideiek orden hierarkikoa dute
II. ZUZENTASUNA	2. Aurkezpena	a) Testuak ematen duen garbitasun irudi globala
		b) Letra argia eta harmonikoa
		c) Marjinak eta paragrafoak
		d) Izenburua behar beste nabarmentzen du
	3. Ortografia	a) Hitzak ongi banatzen ditu
		b) Oinarrizko hiztegia ongi idazten du
		c) Letra larrien erabilera arauak aplikatzen ditu
		d) H, TS, TZ eta TX ongi erabiltzen ditu
	4. Zuzentasuna eta lexiko aberastasuna	a) Ez du arruneriari erabiltzen
		b) Ongi erabilitako adjektibo ugari erabiltzen ditu
		c) Ez du erdarakadarik erabiltzen.
		d) Hiztegi anitza
	5. Morfosintaxia	a) Galdegaia ongi azaltzen du
		b) Ez du komuntadura akatsik (ergatiboa, plurala, deklinabidea...)
		c) Aditz-formak egoki erabiltzen ditu
		d) Esaldi konposatueta ez du arazorik erlatibozko egiturak erabiltzen
		e) Joskera zuzena
III. KOHESIOA	6. Erreferentzia eta kohesioa	a) Erreferentzia egoki gordetzen du, hainbat mekanismo erabiliz (izenordainak, sinonimoak, substantibazioa...)
		b) Beharrezkoak ez diren errepikapenik ez du egiten
		c) Aditz-formetan denbora korrelazioa zaintzen du
		d) Lokailu egokiak eta anitzak erabiltzen ditu, hainbat modutan
	7. Puntuazioa	a) Puntuakin bereizitako esaldi osoak egiten ditu
		b) Paragrafo erregularrak eta ez sobera luzeak egiten ditu
		c) Komak egoki erabiltzen ditu
		d) Galdera eta harridura ikurrak eta gidoiak egoki erabiltzen ditu
IV. KOHERENTZIA	8. Zentzua eta koherentzia	a) Testuaren zentzu globala
		b) Paragrafo berean ez dago kontraesanik
		c) Egitura argia
		d) Garrantzitsua eta beharrezkoa ez den informaziorik ez dago
		e) Ez dago hutsune edo jauzi handiegirik, eta testuan ez da falta beharrezkoa den informazioa
		f) Informazioa modu progresiboan eta orekatuan azaltzen da
V. EGOKITASUNA	9. Egokitasuna	a) Hizkera idatzian berezkoa den kodea darabil, ahoko erregistro tipikoaren orde
		b) Agindutako lanari egokitzen zaio (luzera, xedea, ikuspegia...)
		c) Ez darabil lagunarteko adierazpenik edo desegokia den erregistrorik
VI. BALIABIDE ETA ESTILO ABERASTASUNA	10. Baliabide eta estilo aberastasuna	a) Hiztegi, egitura sintaktiko... aberatsak darabiltza
		b) Gaiaren ikuspegia originala da
		c) Estilo zaindua du (testuak ematen duen irudi globala)

I. PLANIFIKAZIOA

Planifikazioa da Lehen Hezkuntzan landu behar diren alderdietako bat, testu idatzien ekoizpenari dagokionez. Ez da ohiko praktika bat, nahiz eta batzuetan ikasleei esplizituki erakusten zaien alde aurreko planifikazio hori egiten. Gerta liteke lehenbizi ebaluazio hauetan ikasleen ehuneko altu batek alderdi horretan puntuazio urria lortzea. Dena dela, eta fase honen garrantzia kontuan izanda, hasierako momentutik ikusten da balioetsia eta puntuatua izan behar duen elementu gisa idazketa. Kontuan izan beharrekoa da ere neska eta mutiko batzuk azaleratzen ez duten planifikazio mentala egiten dutela, baina azaleratzen ez dutenez, ezinezkoa da puntuaziorik ematea. Komenigarria da beraz, ideiak ebaluazio-koadernotara eraman daitezen azpimarratzea.

1. Planifikazioa

Hurrengo irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Ideiak eta edukia antolatzeako eskema bat erabiltzen du

Irizpide hau baloratzea oso erraza da. Ikasleek testuaren bertsio laburtu bat idazteko joera dute (ikasle batzuk ia behin betiko testuaren bertsio bat idazten dute). Ia esan liteke zirriborro bat egiten dutela, maila didaktikoan oso garrantzitsua den alderdi bat, baina ebaluazio honetan garrantzirik ez duena. Ideiak antolatzeako prozedurarik erabiltzen ote duten baloratuko da. Errazena eta ikastetxeetan gehien erabiltzen dena gidoiak dira. Gidoi bakoitzean testuaren ideia garrantzitsu bat idazten da gutxi gorabehera. Hori aski da adierazle honetan positiboki puntuatzeko. Komenigarria da denborarekin ikasleek sistema landuagoak erabiltzea: eskemak, mapa kontzeptualak etab.

b) Planifikazioan aberastasuna ikusten da

Kalitateari erreparatzen zaio kantitateari baino. Irizpide hori baloratzerakoan, planifikazioan aberastasuna ote dagoen aztertuko da (noski, 4. mailako ikasleetan pentsatuz), edo, kontrakoa, adierazgarritasun txikiko xehetasunak nagusi ote diren. Hau da, narratio bat izanez gero argumentua da atzeman beharrekoa, edo ideien antolaketa, azalpen testua baldin bada, adibidez.

c) Ideiek orden hierarkikoa dute

Irizpide honetan idatzitako hitz kopuruaren eta testuaren baitako ideia garrantzitsuen arteko harremana baloratzen da. Ez da arazo kuantitaboa,

baizik eta ideia kopurua idei garrantzitsuenen presentzia eta nagusitasunarekin haztatzea, eta ez garrantzi txikiko ideien, xehetasun hutsalen presentzia.

II. ZUZENTASUNA

“Zuzentasuna” ongi idatzitako testuen ezaugarria da. Testu zuzen batek ongi aurkeztua eta irakurteraza izan behar du. Baina alderdi formal horiek ez dira aski. Gainera zuzena izan behar du ortografikoki. Hitz bakoitza akatsik gabe idatzi behar da, arrunkeriari, lagunarteko edo ahozko hizkuntzaren esamolderik erabili gabe. Maila honetan ikasleek bi kodeak praktikoki desberdindu behar dituzte: ahozkoa eta idatzia; jakin beharrekoa dute ez dela idazten hitz egiten den gisan. Azkenik, testuak arau sintaktikoak errespetatu behar ditu.

Jarraian modu analitikoagoan azaltzen dira “zuzentasunaren” baitako alderdi horiek eta beren irizpideak.

2. Aurkezpena

Hau da “zuzentasunaren” atalean kontuan hartzen den lehenengo alderdia. Hurrengo irizpideak hartuko dira kontuan:

a) Testuak ematen duen garbitasun irudi globala

Alderdi aski subjektiboa da hau. Beraz, komenigarria da irakasle taldeak testu garbi bat zer den aldezturik adostea. Horretarako, testu batzuk hartuko dira, txukuntasunaren arabera antolatu eta bateratze lana egin ondoren maila onargarria zein den ezarriko da.

b) Letra argia eta harmonikoa

Arestian esandakoa irizpide honi aplikatzen ahal zaio ere. Argitasuna irakasle talde guztietan orokorrean onartzen den balioa da, ez ordea letraren kalitatea: trazua, armonia... irakurgarritasunaren mesedetan baloratu gabe uzten ahal diren alderdiak dira.

c) Marjinak eta paragrafoak

Irizpide hau baloratzea erraza da, ebaluazio-koadernoan marratua baita, bai ezkerreko marjina bai eskuinekoan. Dena dela, ikasle batzuek ez dituzte errespetatzen, batez ere eskuinekoa.

d) Izenburua behar beste nabarmentzen du

Idazkiaren tituluak, aldez aurretik emana ez dagoenean, idazkiaren edukia modu egokian islatzen du. Titulua ez da izan behar testuan kontatzen, azaltzen edo deskribatzen denaren zati baten edo zerbait desberdinaren isla.

3. Ortografia

“Zuzentasunaren” atalean aztertzen den bigarren atala da hau. Hurrengo lau balorazio irizpideak hartuko dira kontuan:

a) Hitzak ongi banatzen ditu

Irizpide hau erraz baloratzen ahal da, ez baitu inolako zailtasunik. Hitzek modu garbian berezita egon beharko dute.

b) Oinarrizko hiztegia ongi idazten du

Irizpide honetan erabiltzen den ortografia baloratu nahi da. Beraz: hiztegia osatzen duten hitzen ortografia hartuko da kontuan soilik, ikasleak ohiko moduan erabiltzen dituztenak, zikloan eskuratutakoak.

Ikastetxe batzuek zikloan landuko den hiztegia identifikaturik dute. Kasu horietan hiztegi hori ohiko moduan erabiltzen den hiztegiari eransten zaio.

c) Letra larrien erabilera arauak aplikatzen ditu

Letra larriak izen propioetan, puntuen ondoren, akronimoetan erabiltzen ote diren aztertuko da.

d) H, TS, TZ eta TX ongi erabiltzen ditu

H letraren erabilpen zuzena baloratuko da, akats hori aski arrunta da gaztelaniarekin hizkuntza interferentziak direla eta. Gisa berean testuan erabili eta zikloan ohikoak diren hitzetan TS, TZ eta TX letren erabilpen zuzena baloratuko da ere.

4. Zuzentasuna eta lexiko aberastasuna

“Zuzentasunaren” atalean aztertzen den hirugarren alderdia da hau. Hurrengo lau balorazio irizpideak hartuko dira kontuan:

a) Ez du arrunkeriarik erabiltzen

Arrunkerien erabilpena modu negatiboan baloratuko da. Sarritan ikasleen

testuetan agertzen dira maila arruntan eta lagunartekoan erabiltzen diren hitz, esamolde eta esaldiak. Arestian aipatutakoak testu idatzi batean agertzea ez da bidezkoa, testuaren generoak horrela eskatzen badu izan ezik (adibidez elkarriketa bat ipuin edo antzezlan batean; lagunarteko adierazpenak, komatxo arteko esaerak iritzi testuetan etab.)

b) Ongi erabilitako adjektibo ugari erabiltzen ditu

Adjektiboak erabiltzeak idazkiari aniztasuna eta bizitasuna ematen dio. Beraz, atal honetan kontuan hartuko da ikasleek beren idazkietan nola erabiltzen dituzte adjektiboak.

c) Erdarakadarik ez du erabiltzen

Hurrengo hitz hauen erabilera modu negatiboan baloratuko da: zuzenak izan gabe euskarara libreki egokitzen diren gaztelaniaren berezko forma batetik eratorritako izen, adjektibo eta aditzak. Ohiko hizkuntza estrategia da hori, eta lehenengo etapan hizkuntza berriarekiko egokitzea erakusten du, maila honetan baina, bi hizkuntza kodeak, bai euskararena eta bai gaztelaniarena aski banandurik egon behar duten unean zaindu beharreko alorra da.

d) Hiztegi anitza

Atal honetan hiztegiaren aberastasuna neurtu behar da. Logikoki, lantzen ari den hiztegia eta ikasleek beren idazkietan eginen duten hiztegi horren erabilera hartu behar dira irizpidetzat.

5. Morfosintaxia

“Zuzentasunaren” atalean aztertzen den laugarren alderdia da hau. Hurrengo zazpi balorazio irizpideak hartuko dira kontuan:

a) Galdegaia ongi azaltzen du

Esaldian hurrenkera desegokia erabiltzea ohikoa izaten da. Kontuan izanda Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak direla ez dugu horrenbeste baloratzen esaldiaren hurrenkera guztiz zuzena izatea, hurrenkera guztiz desegokia ez den modu batean egitea baizik.

b) Ez du komunztadura akatsik (ergatiboa, plurala, deklinabidea...)

Erraza da akats mota hau adin hauetako ikasleen idazkietan ikustea, batez ere esaldi luzeetan. Batzuetan ikasleek idazten ari diren kontakizunean

murgildu eta subjektuaren erreferentzia galtzen dute, konkordantzia ahaztu edo deklinabidearen kasuak modu desegokian erabiltzen dituzte.

c) Aditz-formak egoki erabiltzen ditu

Ez da ziklo honen helburua ikasleek aditz-forma eta tempus guztiak ongi menperatzea, baina horrek ez du baztertzen ohikoen diren moduetan aditz-forma desberdinak ongi erabiltzea (lehen aldia, pluralaren morfema, oinarritzko trinkoak, izen sintagmei dagokien markak...)

d) Esaldi konposatueta ez du arazorik, bereziki erlatibozko egiturak erabiltzean

Esaldi konposatueta ez du arazorik erlatibozko egiturak erabiltzeko.

e) Joskera zuzena

Ikasleen idazki bat irakurtzerakoan berehala ikusten da sintaxia ongi menperatzen duen edo ez. Baliteke perpaus sinpleak erabiltzea, eta aldiz menpeko perpaus gutxi erabiltzea. Alderantziz, asmo handiagoko estiloa erabiltzen ahal du eta menpeko perpaus eta joskera konplexu kopuru handia erabili. Edozein modura arau sintaktikoeekin bat idatzitako perpausak izan behar dute: subjektu eta predikatua, osagarriak...

f) Esaldiak beti bukatzen ditu

Perpaus guztiak osorik dauden, edo alderantziz, bukatu gabe uzten diren aztertuko da. Dena dela, kontuan izan beharko da gerta litekeela ikasleren batek baliabide erretoriko gisa erabiltzea (orokorrean perpausaren bukaera eten-puntuaz lagunduta egon beharko du). Noski, kasu horietan ez da adierazle negatibotzat hartuko.

g) Esaldi luzeegirik ez du erabiltzen

Esaldien luzera ez da berez akatsa. Idazle ugari oso esaldi luzeak idazten dituzte, menpekoak eta menpekoak kateatuz. Dena dela, eta egitura sintaktikoen konplexutasuna menperatzen ez duten Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak direnez, perpaus luzeegiak erabiltzea idazketan akatsak egitearen zantzu izaten da. Akats horiek zuzentzeko perpaus laburragoak eta idazleak kontrolatutakoak egitera bideratzen dira ikasleak.

III. KOHESIOA

Kohesioa ongi idatzitako testuen ezaugarri nagusienetakoa da. Ikuspuntu honetatik testu egoki bat lortzeko mekanismo sintaktiko eta semantikoak erabiltzen dira perpausen, paragrafoen eta orokorrean testuaren arteko harremanak adierazteko. Xehekiago aztertuko dira kohesioarekin lotutako bi alderdi hauek: erreferenteen eta lokailuen erabilera zuzena.

Jarraian “kohesioan” sartzen diren alderdi horiek modu analitikoagoan azaltzen dira, bere ebaluazio irizpideekin.

6. Erreferentzia eta kohesioa

Alderdi honen baitan lau adierazle sartzen dira.

a) Erreferentzia egoki gordetzen du, hainbat mekanismo erabiliz (izenordainak, sinonimoak, substantibazioa...)

Batez ere de izenordainen, sinonimoen, substantibazioaren eta abarren erabilerari dagokio, dagoeneko esanda dagoen eta errepikatu nahi ez den zerbait aipatzeko.

b) Beharrik gabeko errepikapenik ez du egiten

Aurrekoarekin lotura handia du. Testua oso errepikakorra den aztertuko da, beharrik izan gabe hitzak errepikatzen dituelako.

c) Aditz-formetan denbora korrelazioa zaintzen du

Irizpide hau funtsezkoa da testu baten kohesioa baloratzerakoan. Kasu askotan kontakizuna (edo beste mota bateko testu bat) aditz-denbora batean hasi eta beste aditz-denbora batera igarotzen da justifikaziorik gabe. Beraz, testu osoan zehar denbora-kohesiorik ba ote den aztertuko da.

d) Lokailu egokiak eta anitzak erabiltzen ditu, hainbat modutan

Lokailuek testuaren jarioritasunari laguntzen diote. “Horregatik”, “bestalde”, “hala ere”, “izan ere”... bezalako lokailuak testua barnetik lotu eta trinkotzen duten partikulen adibide dira. Dena dela, modu negatiboan baloratu beharko dira testuan etengabe errepikatzen badira.

7. Puntuazioa

Alderdi honen baitan hiru ebaluazio-irizpide sartzen dira.

a) Puntuekin bereizitako esaldi osoak egiten ditu

Funtsezko irizpidea da etapa honetan. Ikasle guztiei eskatu beharreko zerbait da.

b) Paragrafo erregularrak eta ez sobera luzeak egiten ditu

Idazkia paragrafo bakar batez osatua dagoen edo aldiz, testua paragrafo desberdinen bidez antolatuta ote dagoen aztertuko da. Paragrafo bidezko antolaketa hautazkoa ez izatea eta ideien antolaketei erantzutea lortu nahi da. Dena dela, malgutasunez jokatu beharko da azkeneko alderdi honetan.

c) Komak egoki erabiltzen ditu

Testuak ongi erabilitako komaren bat izatea kontuan hartuko da. Komak txertatzeko ahalegina gehiago baloratuko da lortutako efektua baino. Hau da, agian ez daude egon beharreko koma guztiak, baina txertatu direnak ongi jarri dira eta ez ausaz.

d) Galdera eta harridura ikurrak eta gidoiak egoki erabiltzen ditu

Galdera eta harridura ikurren erabilpena esaldiaren amaieran baloratuko da soilik. Gidoiei dagokienez testuaren elkarrizketetan eta hitz ohikoenetan (etxeokak: aiton-amona, seme-alabak..., hitz elkartu bikoiztuetan: gorri-gorria, poliki-poliki,...edo indartze hitzetan: zehatz-mehatz, plisti-plasta...) erabiltzen ote diren baloratuko da.

IV. KOHERENTZIA

Koherentzia ongi idatzitako testuen beste ezaugarri bat da. Lotura handia dauka kohesioarekin. Ezaugarri honek zerikusia dauka testuaren zentzuarekin eta ideiak, argudioak etab. azaltzeko aurrerapenarekin. Koherentzia informazio bereizlea zein den eta edozein irakurle arruntarendako ulergarri izan eta zentzua helarazteko plan baten arabera berau nola antolatu behar den azaltzen duen testuaren ezaugarria da. Batzuetan ikasleen idazkiak ilunak eta nahasgarriak dira, ideiak errepikatu, nahasi eta antolatu gabe aurkezten dituzte. Kasu horietan koherentziarik gabeko testuak dira.

Bada gainera kanpo koherentzia bat zerikusia duena benetako munduaren (edo fikziozkoaren) eta testu idatziaren edukiaren arteko harremanekin.

8. Zentzua eta koherentzia

Jarraian “koherentziarekin” zerikusia duten sei adierazle modu analitikoagoan azaltzen dira. Adierazle horiek elkarren arteko lotura handia dute. Fenomeno bera alderdi zehatz desberdinetatik aztertzen da. Soilik balorazio analitiko bat egiteko posible izanen zen adierazle horiek bereiztea.

a) Testuaren zentzu globala

Testuaren lehendabiziko irakurketa egin ondoren zuzentzaileak testuak zentzu globala ote duen egiaztatzen ahal du. Orokorrean (ez da beti gertatzen, baina ohikoa da) bigarren irakurketa bat behar denean zentzu honetan akatsak izaten dituelako da. Adierazle honetan egiaztatu nahi da testuaren argumentuaren haria aski sendoa ote den testu bat osatzeko edo, alderantziz, alde aurreko plan bati erantzuten ez dioten informazio multzo partzial bat ez ote diren.

b) Paragrafo berean ez dago kontraesanik

Irizpide honekin testuan barne kontraesanik ote dagoen aztertu nahi da. Batzuetan argumentuaren hari bat daramate eta ibilian aldatzen dute, aurrekoarekin kontraesankorra eta koherentziarik gabekoa den informazioa sartuz. Beste batzuetan ikasleak testuan isla aurkitzen ez duten jauzi mentalak ematen dituzte (inplizituak) eta efektu mota hori sortzen dute.

c) Egitura argia

Irizpide hau baloratzea erraza izaten da. Narrazio-testu bat izanez gero aurkezpena, gakoa eta amaiera desberdintzen ahalko dira. Azalpen testu bat aztertzen ari bagara, arazoaren planteamendu bat, aurrekoarekin bat datorren funtsezko puntuak garatzen dituen informazio bat eta azkenik ondorio batzuk egon beharko dira.

d) Garrantzitsua eta beharrezkoa ez den informaziorik ez dago

Aurrekoarekin lotuta, badira egituraren argitasun narratiboa edo azalpenekoa apurtzen duten xehetasun ugari dituzten testu batzuk. Kasu batzuetan, kontakizunak direnean ikasleak modu sakonean deskribatzen dituzte pertsonaiak; erraza da egiaztatzea xehetasun horien xedea korapiloa interpretatzea dela. Beste batzuetan, historiaren koadro globalean inolako garrantzirik ez dituzten ekintzak sartzen dituzte, eta gainera testuaren linealtasuna apurtzen dute.

e) Ez dago hutsune edo jauzi handiegirik, eta testuan ez da falta beharrezkoa den informazioa

Irizpide horrek inplizituaren existentziari egiten dio aipu. Inplizitu horiek justifikatu gabeak izan behar dute testuak zentzu horretan akatsak dituela uste ahal izateko. Testu orok inplizituak dauzka (idazle handiek idatzitakoak barne). Ezinezkoa da testu bat idaztea kontakizunean, deskribapenean edo azalpenean sortzen den informazio guztia agerian utziz. Beraz, hemen akatsak daudela ulertuko da irakurleak (zuzentzaileak) laugarren mailako testu batean normala dena baino gehiago igarri behar duenean.

f) Informazioa modu progresiboan eta orekatuan azaltzen da

Koherentziarekin zerikusia duen azkeneko irizpide honek testuaren zati desberdinen arteko oreka baloratu nahi du. Horrela, adibidez, ikasleek idatzitako kontakizun batzuetan aurkezpena, lehendabiziko eszenak (ekintzak) asko atzeratzen dira, eta bat-batean, presazko modu batean, korapiloa eta amaiera ematen dituzte oso modu motz eta sinplean. Beraz, baloratuko da testuaren zati ezberdinak oreka gordetzea. Eraginkortasunaren aldetik batzuetan baliagarria da gorriz azaltzea non hasi eta bukatzen den zati bakoitza, horrela zati bakoitzari eskaintzen ahal zaion tarteak ikusten ahal da. Dena dela, ez da ulertu behar kantitate arazoa denik, ezta gutxiago ere.

V. EGOKITASUNA

Egokitasuna ongi idatzitako testuen ezaugarria da. Ezaugarri honek testua testuinguruan ongi txertatzen ote den aztertzen du: irakurle mota, testua irakurtzen den egoera etab. Logikoki 4. mailako ikasleak ez dira gai izanen aldagai horiek agerian uzteko, inplizituki kontuan dituzten arren. Hala ere beharrezko eta egokitzat jotzen da ezaugarri hori txertatzea eta ikasleak gai horrekin ohitzen joatea (Testu hau norendako idatzi dela uste duzue?).

9. Egokitasuna

Ikasleek ekoitzitako testuak baloratzean hiru balorazio irizpide hartuko dira kontuan.

a) Hizkera idatzian berezkoa den kodea darabil, ahozko erregistro tipikoaren orde

Logikoki, idatzizko kodea ez da zehazki ahozko kodea bezalakoa: hurbi-

lagoa da, ezaguna da, testuinguruaren laguntza du ulermena errazteko, orokorrean ulertzen ez bada azalpenak eskatzea posible den egoeretan gertatzen da, etab. Adierazle honek ikasleek testu bat idazterakoan idatzizko kodea modu egokian erabiltzeko eta bereizketa hori egiteko duten gaitasuna baloratu nahi du. Ahozkotasunari lotuagoa den kode bat nahita erabili nahi den kasuetan (elkarrizketak...) testuan agerian geratu beharko du nahitakoa dela (adibidez, elkarrizketetan gidoiak jarritz, hitzez hitzeko adierazpenak komatxo artean jartzea, beste aukera batzuen artean).

b) Agindutako lanari egokitzen zaio (luzera, xedea, ikuspegia...)

Irizpide honetan ebaluazio proban jarri zaion lanari erantzuten dion aztertuko da. Kontuan izanen dira, beraz, luzera, helburua eta ikuspegia, beste alderdi batzuen artean. Luzerari dagokionez, kontuan izanen da testua motzegia, edo alderantziz, luzeegia ote den. Aldez aurreko luzera estandar bat egon arren, testu bakoitzak luzera zehatz bat behar du bere helburuak betetzeko (adierazi nahi den hori adieraztea, irakurlea aspertu gabe). Helburuari eta ikuspegiari dagokionez aztertu behar da aldez aurreko helburu bati erantzuten dion: istorio bat kontatu, pertsona edo paisai bat deskribatzea, ideia sorta bat azaltzea. Ohikoa da, adibidez, ikasle batzuk azalpen-testu bat idazten hasi eta narrazio-testu bat idazten bukatzea.

c) Ez darabil lagunarteko adierazpenik edo desegokia den erregistrorik

Irizpide hau desberdina da, nahiz eta harreman handia izan idatzizko hizkuntzaren kode tipikoen erabilerari buruzko “a” puntuan deskribatutakoarekin. Hemen analisi zehatzagoa egiten da. Posible da idatzizko kodearen ikuspuntutik zuzen idatzia dagoen testu bat aurkitzea baina baliteke unean-unean arrunkeariaren bat txertatu izana bertan. Hala ere, akatsak sarritan bai tokikoak bai globalak dira; hau da kodeari eta adierazpen zehatzei eragiten diete.

VI. BALIABIDE ETA ESTILO ABERASTASUNA

Laugarren mailako ikasle bati idazterako orduan berezko estiloa izan dezala eskatzea handiustea eta errealismorik gabekoa izan daiteke, gainera. Hala ere, posible da ongi idatzitako testuen ezaugarri honekin lotura duten alderdi batzuei erreparatzea. Askotan ikasleen bi testu irakurtzerakoan, biak ongi idatziak, horietako batek besteak ez duen zerbait duela ikusten da; eta batzuetan oso zaila da zergatia atzematea (egilearen estiloaren harreman

zuzena duena). Hemen eraginkorrago eta egiaztagarriago diren hiru balorazio irizpide aurreikusten dira. Batzuetan adierazle multzo hori “testuaren inpresio orokorra” kategoriarekin ordezkatzan da. Egokiago dirudi zehaztea, ahal den neurrian behintzat, zer dela eta testu batek inpresio ona edo txarra sortzen dion irakurleari.

10. Baliabide eta estilo aberastasuna

a) Hiztegi, egitura sintaktiko... aberatsak darabiltza

Hiztegiaren aberastasuna eta aniztasuna inpresio orokor on bat sortzen duten faktoretako bat da. Aberastasun honen ondoan hiztegi gutxiko eta hitzak errepikatzen dituzten testuak ditugu, edo oso hitz arruntak erabiltzen dituztenak, eta beren testu edo irakurketa liburuetan agertzen diren hitz berriak erabiltzen ez dituztenak. Hitzak erabilera kuantifikatzen duten hizkuntza ikerketetan, ohiko erabilera dutenak dira hiztunen diskurtsoetan maiztasunez erabiltzen direnak. Adierazle honetan sartzen den beste alderdiak sintaxiarekin dauka zerikusia. Egitura sintaktiko urri eta oinarritzakoak erabiltzea estilo urritasun inpresioa sortzen du. Hala ere menpeko esaldiak eta neurri batean konplexuak direnak erabiltzeak (ongi erabiltzen direnean) estiloa aberasten du.

b) Gaiaren ikuspegia originala da

Nekez kuantifikatzen ahal den alderdia da hau, baina erraz hauteman daitekeena ikasle baten testua irakurtzen denean. Testua asmatzeko erabili duten irudimenarekiko oso istorio pobreak daude. Puntu hau ez dagokie soilik testu narratibo eta deskriptiboei, beste testu mota batzuei aplikatzen ahal zaie ere, azalpen testuei adibidez. Badira oso aspergarri eta interesik gabekoak diren testuak, eta aldiz beste batzuk ideiak transmititzea lortzen dutenak ikuspegi pertsonal, landuago eta azken finean irudimenezkoago bati esker (adibidez, adibideak, ikuspuntu berriak etab. erabiltzen dituztenak).

c) Estilo zaindua du (testuak ematen duen irudi globala)

Testua irakurtzerakoan sortzen duen inpresio orokorra jasotzeko kualitatiboagoa den azken irizpide utzi da.

III. Testuak ebaluatu eta zuzentzearen adibideak

Ondoren lau ikaslek idatzitako testu bana aurkeztuko dira, zuzenketa independente bikoitzarekin aztertuak. Horretarako, erabilitako irizpide bakoitzaren kuantifikazioa baliatu duen eredu bati jarraitu zaio. (ikusi I. ERANSKINA). II. ERANSKINA aurrekoaren bertsio sinplifikatua da. “I. eredua” konplexuagoa da forma aldetik, baina bestalde erabilgarriagoa da irakasleen artean irizpide komunak ezartzeko, analitikoagoa izanik, lana nola egin behar den hobeto markatzen baitu, eta ebaluatzaileak bat ez datozen alderdiak identifikatzea ahalbidetzen baitu. II. eredua itxuraz eta formaz errazagoa izan arren, alderdi bakoitza baloratzeko irizpide argirik ez izatearen desabantaila dauka.

A- 1. mailako testua

Ondoren 1. mailako testu baten analisisia aurkeztuko dugu. Testu honek ez ditu betetzen 4. kurtzorako ezarri diren helburuak. Maila honetako ohiko adibide izan daitekeen testua aurkezteko ideia izan dugu (irizpide guztiak modu negatiboan baloratu dira). Aspektu guztiak hobetu behar dira: planifikazioa, lexiko aberastasuna, morfosintaxia, kohesioa, koherentzia... hori dela eta, arreta eskaini behar zaie testua hobetze aldera egin diren proposamenei.

Idazten hasi aurretik, gidoia egin

Gidoi bat egin behar duzu, zure ideiak antolatzeko:

- Erabaki ezazu nolakoa izanen den idatziko duzun istorioaren pirata-protagonista: zein den bere izena, nolakoa den, zer duen, zer falta zaion...
- Pentsa ezazu bere itsasontzian eta norekin doan.
- Idatz ezazu zer egin duen, zer gertatzen zaion: norekin egiten duen topo, zer lortu nahi duen, gustatzen ote zaion egiten duena...
- Pentsa ezazu zein izan daitekeen zure istorioaren bukaera: dena konpontzen ote den, pozik edo triste ote dauden, merezi izan duela pentsatzen ote duten...

Guil tanner da nire pirata.

Den begi oso politak hilea luze eta marroia, libote eta peria, indartsua da.

Bera ez du berentzako itsasontzia, joaten da Jack Sparrow eta Elisabet Zua.

Egin du espata eta gauzak horietako zerbait. Gustatzen zaio neska lapurtzen gaiote eta berari nahi dio salbatu.

Kartzelarekin zeran lagundu zion pertsona bati eta orduan berari zartzen zaio.

Nahi du ezkondu neska batekin Elisabet Zua.

Azkenean artzen diote nekari eta Jack

Sparrow salbatzen dio ez hiltzeko.

Orain testua idatziko dut

Pentsatu duzu honezkero nolakoa izanen den zure abentura, eta istorioa idazten lagunduko dizun gidoia ere baduzu. Orain has zaitezke.

- Egin ezazu poliki eta letra argiz.
- Izan gogoan puntuazio markak jarri behar dituzula eta, elkarriketa bat idazten baduzu, marratxo edo marra luzea.
- Has zaitez paragrafo berri batekin gaiaz aldatzen duzun aldiro, eta pentsatu paragrafo bakoitzari hasiera emateko hitzetan.

Zure imajinazioarekin abentura eder bat idatziko duzu!

Pirata del Caribe

Irla batean korond asko zeuden baina egiten duen espatak eta hori bere aitak pirata bat izan zen. Eta egun batean pirata txarrak etorri ziren eta nahi zutena zen neska eta bere koilar bat eta lapurtu zuten biri eta bestea konturatu zen eta horduan pentsatu egin zuen eta zekien Jack Esparron zegoela kartzelan eta tratu bat egin zuten Guil Turner ateratzen zion kartzelatik eta Jack Esparron eramaten zion neska dagoen lekuan. Eta Jack Esparron nahi zuen tribu bat piraten txarrak kontra borrokatzeko.

Eta irla batera joan eta tribu bat
 egin zuen eta nekari bila joan ziren,
 eta egun batean zeuden nahi zutenean
 zen kueba batean eta neska artu eta nahi
 zuten joan baina piratak txarrak
 konturatu ziren eta beraiei nahi zuten
 pilatu baina koronel denak joan
 zien eta asko hil ziren, baina beste
 piratak ere hil ziren eta azkenean
 denok beste irlara joan eta Jack Sparrow
 nahi zuten hil eta hordua Guil Tarnes
 eta Elizabet I.a zabaldu ziren
 eta Jack Sparrow joan ziren irla
 horrekin

PLANIFIKAZIOA

1. Planifikazioa

Ideiak antolatzeko eskaintzen zaion gidoian oinarritzen da, puntuz puntu galderak izango balira bezala erantzuten ditu. Paragraforik ez da agertzen. Ez da planifikazioa, laburpen bat baizik.

	Bai (2)	Hein batean/zalantza (1)	Ez (0)
Ideiak eta edukia antolatzeko eta sistematizatzeko prozeduraren bat darabil (eskema, kontzeptu mapa...)		X	
Planifikazioan ideien aberastasuna ikusten da			X
Ideiek orden hierarkikoa dute			X

Puntuazio irizpidea:

6ko batura5 puntu

5eko batura4 puntu

4ko batura3 puntu

3ko batura2 puntu

2ko batura1 puntu

0-1eko batura0 puntu

Planifikazioan osotara: 0 puntu

ZUZENTASUNA

2. Aurkezpena

Testua ongi aurkeztuta dago. Idazkera homogeen eta orokorrean irakurgarria, argia da, irakurketa errazten du. Marjinak ongi agertzen dira. Paragrafoak ez ditu bereizi eta ez du elkarrizketarik sartu, beraz ez du gidoirik erabili. Testua txukun dagoela esan daiteke.

	Bai (2)	Hein batean/zalantza (1)	Ez (0)
Testuak ematen duen garbitasun irudi globala	X		
Letra argia eta harmonikoa	X		
Marjinak eta paragrafoak	X		
Izenburua behar beste nabarmentzen du	X		

Puntuazio irizpidea:

8ko batura	5 puntu	5eko batura	2 puntu
7ko batura	4 puntu	3-4ko batura	1 puntu
6ko batura	3 puntu	0-2ko batura	0 puntu

Aurkezpenean osotara: 5 puntu

3. Ortografia

Hitzak ongi bereizita daude eta akats ortografiko gutxi ditu, bakarrik “espata” ezpata beharrean, “horduan” hatxe-rekin, “artu” hatxe-rik gabe, besterik ez.

	Bai (2)	Hein batean/zalantza (1)	Ez (0)
Hitzak ongi banatzen ditu		X	
Oinarrizko hiztegia ongi idazten du			X
Letra larrien erabilera arauak aplikatzen ditu	X		
H, TS, TZ eta TX ongi erabiltzen ditu			X

Puntuazio irizpidea:

8ko batura	5 puntu	5eko batura	2 puntu
7ko batura	4 puntu	3-4ko batura	1 puntu
6ko batura	3 puntu	0-2ko batura	1 puntu

Ortografian osotara: 5 puntu

4. Zuzentasuna eta lexiko aberastasuna

Testuan arrunkeari ez da agertzen, erabilitako lexikoa oinarrizkoa da. Agertzen diren adjektiboak arruntak dira. Orokorrean adierazpena ez da aberatsa. Zuzen baina xume idazten du, lexiko aldetik eta sintaxi aldetik. Lexikoa urria da, eta hitz berak errepikatzen ditu sinonimorik bilatu gabe.

	Bai (2)	Hein batean/zalantza (1)	Ez (0)
Ez du arrunkeari erabiltzen	X		
Ongi erabilitako adjektibo ugari erabiltzen ditu			X
Ez du erdarakadarik erabiltzen.		X	
Hiztegi anitza			X

Puntuazio irizpidea:

8 batura.....5 puntu
7ko batura4 puntu
6ko batura3 puntu

5eko batura.....2 puntu
3-4ko batura1 puntu
Suma 0-21 puntu

Lexikoan osotara: 1 puntu

5. Morfosintaxia

Aspektu honetan esan daiteke esaldiak ongi bukatzen dituela baina narrazioaren ulermena zailtzen dituen akats garrantzitsuak daude:

- oso esaldi luzeak egiten ditu (3 esaldirekin betetzen ditu testu osoa), “eta” lotura gehiegi erabiltzen du, halako esaldi luzeetan galtzen da ikaslea eta irakurlea ere,
- komunztadurak ere ez ditu oso ondo kontrolatzen, eta noizbehinka horrek ere ulermena zailtzen du (“nahi zutena zen neskari”); ergatiboa gaizki erabilita dago (“aitak pirata bat izan zen”),
- esaldien hitzen ordena okerreana da, gaztelaniak guztiz kutsatuta: “horduan pentsatu egin zuen eta zekien jack Esparrou zegoela kartzelan eta tratu bat egin zuten...”

	Bai (2)	Hein batean/zalantza (1)	Ez (0)
Galdegaia ongi azaltzen du	X		
Ez du komunztadura akatsik (ergatiboa, plurala, deklinabidea...)	X		
Aditz-formak egoki erabiltzen ditu	X		
Esaldi konposatuetan ez du arazorik erlatibozko egiturak erabiltzean	X		
Joskera zuzena	X		
Esaldiak beti bukatzen ditu	X		
Esaldi luzeegirik ez du erabiltzen		X	

Puntuazio irizpidea:

13-14ko batura5 puntu
11-12ko batura4 puntu
9-10eko batura.....3 puntu

7-8ko batura2 puntu
5-6ko batura1 puntu
0-4ko batura0 puntu

Morfosintaxian osotara: 1 puntu

KOHESIOA

6. Erreferentzia eta kohesioa

Erreferentzia mantentzeko baliabiderik ez du erabiltzen, subjektua edo erreferentea bera errepikatzen du behin eta berriz.

Pertsonaiak ez ditu deskribatzen.

“Baina” eta “eta” erabiltzen ditu maizegi, batez ere “eta”. Bitan “horduan” erabiltzen du.

Aditzak bakarrik lehenaldian erabiltzen du soilik.

	Bai (2)	Hein batean/zalantza (1)	Ez (0)
Erreferentzia egoki gordetzen du, hainbat mekanismo erabiliz (izenordainak, sinonimoak, substantibazioa...)			X
Beharrezkoak ez diren errepikapenik ez du egiten			X
Aditz-formetan denbora korrelazioa zaintzen du	X		
Lokailu egokiak eta anitzak erabiltzen ditu, hainbat modutan			X

Puntuazio irizpidea:

8ko batura5 puntu

7ko batura4 puntu

6ko batura3 puntu

5eko batura2 puntu

3-4ko batura1 puntu

0-2ko batura0 puntu

Erreferentzia eta kohesioan osotara: 0 puntu

7. Puntuazioa

Puntuazioa ongi erabiltzen du, esaldiak bukatzen ditu, komaren erabilera kasu gehienetan egokia da. Baina oso esaldi luzeak egiten ditu, “eta”-rekin lotuta, behin eta berriro errepikatzen da.

Testua ez dago paragrafo desberdinetan banatuta.

	Bai (2)	Hein batean/zalantza (1)	Ez (0)
Puntuekin bereizitako esaldi osoak egiten ditu	X		
Paragrafo erregularrak eta ez sobera luzeak egiten ditu			X
Komak egoki erabiltzen ditu	X		
Galdera eta harridura ikurrak eta gidoiak egoki erabiltzen ditu.			X

Puntuazio irizpidea:

8ko batura5 puntu

7ko batura4 puntu

6ko batura3 puntu

5eko batura2 puntu

3-4ko batura1 puntu

0-2ko batura0 puntu

Puntuazioan osotara: 1 puntu

KOHERENTZIA

8. Zentzua eta koherentzia

Testuak zentzu globala badu ere, narrazioa ez dago ondo eginda. Ez du sarrerarik, bat-batean sartzen da korapiloan (“Irla batean koronel asko zeuden baina egiten duen espatak eta hori bere aitak pirata bat izan zen”).

Ikasleak berak ez du istorioa asmatu, pelikula bat laburtu baizik. Eta lagun bati kontatuko balio bezala, idatzita dago.

Ezin da haria erraz jarraitu.

	Bai (2)	Hein batean/zalantza (1)	Ez (0)
Testuaren zentzu globala		X	
Paragrafo berean ez dago kontraesanik		X	
Egitura argia			X
Garrantzitsua eta beharrezkoa ez den informaziorik ez dago	X		
Ez dago hutsune edo jauzi handiegirik, eta testuan ez da falta beharrezkoa den informazioa		X	
Informazioa modu progresiboan eta orekatuan azaltzen da			X

Puntuazio irizpidea:

12ko batura10 puntu
 11ko batura9 puntu
 10eko batura8 puntu
 9ko batura7 puntu
 8ko batura6 puntu
 7ko batura5 puntu

6ko batura4 puntu
 5eko batura3 puntu
 3-4ko batura2 puntu
 1-2ko batura1 puntu
 0ko batura0 puntu

Koherentzian osotara: 3 puntu

EGOKITASUNA

9. Egokitasuna

Testua egokia da, baina ez oso. Ikasleak ez du narrazio bat asmatu, pelikula bat laburtu baizik. Dena den, ez da ikaslearen ardura, lan proposamenaren akatsa baizik.

Horixe aparte utzita, agindutako lanari egokitzen zaio, bai luzeran, bai xedean eta ikuspegiaren ere. Hizkera idatzian berezkoa den kodea erabiltzen du.

	Bai (2)	Hein batean/zalantza (1)	Ez (0)
Hizkera idatzian berezkoa den kodea darabil, ahozko erregistro tipikoaren ordezt		X	
Agindutako lanari egokitzen zaio (luzera, xedea, ikuspegia...)	X		
Ez darabil lagunarteko adierazpenik edo desegokia den erregistrorik.	X		

Puntuazio irizpidea:

6ko batura5 puntu
 5eko batura4 puntu
 4ko batura3 puntu

3ko batura2 puntu
 2ko batura1 puntu
 0-1eko batura0 puntu

Egokitasunean osotara: 4 puntu

BALIABIDE ETA ESTILO ABERASTASUNA**10. Baliabide eta estilo aberastasuna**

Testuan agertzen den hiztegia eta baliabideak ez dira oso aberatsak, orokorrean estiloa ez da oso zaindua. Ikasleak ez du pentsatu edo ez daki testu bat hobetu ahal dela. Argi dago zirriborrorik egin ez duela, eta zirriborrorik egiten ohitura ez duela.

	Bai (2)	Hein batean/zalantza (1)	Ez (0)
Hiztegi, egitura sintaktiko... aberatsak darabiltza			X
Gaiaren ikuspegia originala da			X
Estilo zaindua du (testuak ematen duen irudi globala)		X	

Puntuazio irizpidea:

6ko batura5 puntu

5eko batura.....4 puntu

4ko batura3 puntu

3ko batura2 puntu

2ko batura1 puntu

0-1eko batura0 puntu

Baliabide eta estilo aberastasunean osotara: 0 puntu

PUNTUAZIOA OSOTARA

Planifikazioa	0
Aurkezpena (zuzentasuna)	5
Ortografia (zuzentasuna)	5
Lexiko aberastasuna (zuzentasuna).....	1
Morfosintaxia (zuzentasuna)	0
Erreferentzia eta kohesioa (kohesioa).....	0
Puntuazioa (kohesioa)	1
Koherentzia	3
Egokitasuna	4
Baliabide eta estilo aberastasuna	0
OSOTARA	19 puntu

MAILAK

3.+ Maila	44 puntu baino gehiago
3. Maila	40 eta 44 puntu artean
2. Maila	27 eta 39 puntu artean
1. Maila	15 eta 26 puntu artean ✓
1. Mailatik behera	15 puntu baino gutxiago

Testua, ikus daitekeenez, idazmenaren errendimenduko 1. mailan dago.

Maila hau baxuegia da ziklo honetarako. Ia aspektu guztiak hobetu behar dira: planifikazioa, lexiko aberastasuna, morfosintaxia, erreferentzia eta kohesioa, koherentzia... Idazmena hobetze aldera hurrengo helburu hauek proposatu daitezke.

Kasu honetarako proposatzen diren helburuak

Hurrengo helburu hauek proposatzen dira kasu honetan, erabili ditugun kategoriak eta plantila kontutan hartuta.

Planifikazioarekin lotuta:

- Planifikazioa sistematikoki lantzea, ideiak eta edukia antolatzeko. Horretarako prozedura jakin bat erabili beharko luke: kontzeptu mapa, eskema, plantila bat bete...Modu honetan ideiak modu sintetikoan agertuko lituzke eta horrek lagunduko lioke idazmena behar bezala antolatzen: ideien hierarkizazioa, testuaren banaketa orekatuta, eta abar (testuaren ezaugarriak kontuan hartuz).

Ortografiarekin lotuta:

- “H”ren erabilera landu (Adb. “Horaindik”, “emen”...)

Zuzentasuna eta lexikok aberastasunarekin lotuta:

- Adjektibo eta hiztegi zabalagoa landu testu idatzietan erabili ahal izateko.
- Zirriborroak egiten ohitura hartu. Honela errazagoa da errepikapenaz eta akatsez konturatzen eta zuzentzen.

Morfosintaxiarekin lotuta:

- Komunztadura akatsak zuzendu: ergatiboa, plurala eta deklinabidearen kasuak ongi erabili.
- Halako esaldi bukaezinak ez egin. Ikasleak saihestu beharko luke: “eta” eta “baina” hainbeste aldiz errepikatzea. Lokailuen erabilera landu eta zerrenda bat eskaini.

Erreferentziarekin lotuta:

- Erreferenteak erabiltzea: izenordainak, sinonimoak... Zirriborroetan azpimarratu ditzake errepikapenak, eta horiek ordezkatu edo, beharrezkoak ez badira, kendu.
- Lokailu egokiak erabiltzen ikasi irakurketa arinagoa eta ulergarriagoa izateko.

Koherentziarekin lotuta:

- Testua ulergarriago egiteko beharrezkoa den informazioa islatu. Esaldi motzagoak egin, planifikazioa ondo landu eta horretan denbora eman (benetako planifikazio bat egiteko, eta ez testuaren laburpena).
- Elkarriketak eta deskribapenak sartu narrazioan. Ikasle honek narrazioaren ezaugarririk garrantzitsuenak agian ez du ezagutzen. Narrazioaren estruktura landu eta paragrafoen arteko erlazioa lokailuen bitartez mantendu.

Baliabide eta estilo aberastasunarekin lotuta:

- Hiztegiaren aniztasuna eta egitura sintaktikoak hobetu. Horretarako zirriborroa egin eta zuzendu; eredu onak izan eta aztertu; testu baten ezaugarririk garrantzitsuenak eta ereduak ezagutu.

B- 2. mailako testua

2. mailako testuek ziklorako ezarri diren irizpideetako batzuk gainditzen dituzte baina beste irizpide batzuetan hutsuneak dituzte. Ondoren maila honetako ohiko testu baten adibidea aurkeztuko dugu.

Idazten hasi aurretik, gidoia egin

Gidoi bat egin behar duzu, zure ideiak antolatzeko:

- Erabaki ezazu nolakoa izanen den idatziko duzun istorioaren pirata-protagonista: zein den bere izena, nolakoa den, zer duen, zer falta zaion...
- Pentsa ezazu bere itsasontzian eta norekin doan.
- Idatz ezazu zer egin duen, zer gertatzen zaion: norekin egiten duen topo, zer lortu nahi duen, gustatzen ote zaion egiten duena...
- Pentsa ezazu zein izan daitekeen zure istorioaren bukaera: dena konpontzen ote den, pozik edo triste ote dauden, merezi izan duela pentsatzen ote duten...

Bere izena Jumpy da, Altua da eta indartua, pata poloa, begi bat falta zaio.

Bere itsasontzia oso handia da, eta bere gizenekis jaten da.

Itxurko maltzurretan egiten du topo, Altua bat lortu nahi du, asko gustatzen zaio egiten duena.

Bukaceran, Merezki izan du pentsatzen de zurea, eta altxorra aurkitzen duela.

Orain testua idatziko dut

Pentsatu duzu honezkero nolakoa izanen den zure abentura, eta istorioa idazten lagunduko dizun gidoia ere baduzu. Orain has zaitezke.

- Egin ezazu poliki eta letra argiz.
- Izan gogoan puntuazio markak jarri behar dituzula eta, elkarrizketa bat idazten baduzu, marratxo edo marra luzea.
- Has zaitez paragrafo berri batekin gaiaz aldatzen duzun aldiro, eta pentsatu paragrafo bakoitzari hasiera emateko hitzetan.

Zure imajinazioarekin abentura eder bat idatziko duzu!

Piraten Altxorra

Bazen behin Urte eder batean altxor bat zegoen, piratak altxorra nahi zuten, bazeagoen, pirata bat Jumpy izenekoa, altua zen, indartsu eta pata paloa zuen baita particea begian.

Beraien itasontzia handia zen eta marinela zukan asko.

Hurrengo egunean itasontzi batekin topo egin zuten, berreka hasi baino lehen Kanonak-pertatu eta...

- Pres. cargatu... tiro, boom!!!
- beste itasontzira mutilak!!!
- bota antza!!!

Berreka bukatu bezain laster Jumpy Kapitainak Itasoko altxorrei irabazi zion, baina Jumpy

ia ez dauka marinelik bere itsasontzian, Jumpy
ez zen inoiz errenditzen, Altxorraen uhartea ikusi
zuten eta dantzan hasi ziren.

Altxorra aurkiketo, Kobazulo batera sartu behar ziren,
ezpatak, eskopetak, pistolak... Amekin.

An kobazuloan eskeletoak zeuden eta hau pentsatzen
zuen:

- Emen gauza bat sumatzen dut

- Nik ere

- Nik ere...

geroago...

- Horaindik gertuago entzuten dut marinelok

- Zer izango da...

Eta eskeleto patruia bat zen altxorrarekin,
ez zeuden beldurtuta zen Jumpy kapitaina zegoen.

borrika egin eta geroago altxorra artu eta
barkura eramane zuten gutxienez artean,
asto pisatzen zuten.

PLANIFIKAZIOA

1. Planifikazioa

Testuaren planifikazioa modu laburtuan egin da. Lau paragrafoetan aipatzen dira narrazioaren hiru atal nagusiak.

	Bai (2)	Hein batean/zalantza (1)	Ez (0)
Ideiak eta edukia antolatze eta sistematizatzeko prozeduraren bat darabil (eskema, kontzeptu mapa...)			X
Planifikazioan ideien aberastasuna ikusten da	X		
Ideiek orden hierarkikoa dute	X		

Puntuazio irizpidea:

6ko batura5 puntu

5eko batura.....4 puntu

4ko batura3 puntu

3ko batura2 puntu

2ko batura1 puntu

0-1eko batura.....0 puntu

Planifikazioan osotara: 3 puntu

ZUZENTASUNA

2. Aurkezpena

Testua oso ongi aurkeztuta dago. Idazkera homogeen eta argia da, irakurketa errazten du. Marjinak ongi agertzen dira. Paragrafoak bereizi ditu eta elkarriketaren gidoiak ongi erabili ditu. Testua txukun dagoela esan daiteke.

	Bai (2)	Hein batean/zalantza (1)	Ez (0)
Testuak ematen duen garbitasun irudi globala	X		
Letra argia eta harmonikoa	X		
Marjinak eta paragrafoak	X		
Izenburua behar beste nabarmentzen du	X		

Puntuazio irizpidea:

8ko batura	5 puntu	5eko batura	2 puntu
7ko batura	4 puntu	3-4ko batura	1 puntu
6ko batura	3 puntu	0-2ko batura	0 puntu

Aurkezpenean osotara: 5 puntu

3. Ortografia

Hitzak ongi bereizita daude baina akats ortografiko batzuk agertzen dira 4. mailari dagokion oinarritzko hiztegia. Kasu batzuetan hizki baten omisioa egiten du (“itsaontzi”, “pestatu”, “pres”...), besteetan “h”ren erabilera gaizki dago: (“emen”, “an”, “artu”, “horaindik”...)

	Bai (2)	Hein batean/zalantza (1)	Ez (0)
Hitzak ongi banatzen ditu	X		
Oinarritzko hiztegia ongi idazten du		X	
Letra larrien erabilera arauak aplikatzen ditu		X	
H, TS, TZ eta TX ongi erabiltzen ditu		X	

Puntuazio irizpidea:

8ko batura	5 puntu	5eko batura	2 puntu
7ko batura	4 puntu	3-4ko batura	1 puntu
6ko batura	3 puntu	0-2ko batura	1 puntu

Ortografian osotara: 2 puntu

4. Zuzentasuna eta lexiko aberastasuna

Testuan arrunkeriari ez da agertzen, erabilitako lexikoa oinarritzakoa da. Agertzen diren adjektiboak arruntak dira. Orokorrean adierazpena ez da oso aberatsa. Zenbait hitz edota esapide erdaraz idatziak daude (“pata paloa”, “cargatu”).

	Bai (2)	Hein batean/zalantza (1)	Ez (0)
Ez du arrunkeriari erabiltzen	X		
Ongi erabilitako adjektibo ugari erabiltzen ditu			X
Ez du erdarakadarik erabiltzen.		X	
Hiztegi anitza		X	

Puntuazio irizpidea:

8 batura5 puntu
7ko batura4 puntu
6ko batura3 puntu

5eko batura2 puntu
3-4ko batura1 puntu
Suma 0-21 puntu

Lexikoan osotara: 1 puntu

5. Morfosintaxia

Aspektu honetan esan daiteke esaldiak ongi bukatzen dituela baina narrazioaren ulermena zailtzen dituen akats garrantzitsuak daude: komunztadurak: (“maltzurri irabazi zion”); ergatibo falta: (“Jumpy ia ez dauka marinelik”, “piratak altxorra nahi zuten...”); esaldien hitzen ordena: (marinelak zeukan asko)

	Bai (2)	Hein batean/zalantza (1)	Ez (0)
Galdegia ongi azaltzen du		X	
Ez du komunztadura akatsik (ergatiboa, plurala, deklinabidea...)		X	
Aditz-formak egoki erabiltzen ditu		X	
Esaldi konposatueta ez du arazorik erlatibozko egiturak erabiltzean	X		
Joskera zuzena		X	
Esaldiak beti bukatzen ditu	X		
Esaldi luzeegirik ez du erabiltzen	X		

Puntuazio irizpidea:

13-14ko batura	5 puntu	7-8ko batura	2 puntu
11-12ko batura	4 puntu	5-6ko batura	1 puntu
9-10eko batura	3 puntu	0-4ko batura	0 puntu

Morfosintaxian osotara: 3 puntu

KOHESIOA

6. Erreferentzia eta kohesioa

Erreferentzia mantentzeko baliabiderik ez du erabiltzen eta askotan erreferentzia galtzen da. Protagonista bakar baten aurkezpena egin ondoren aditza pluralean agertzen da, pertsonaia gehiagorik aurkeztu gabe.

Elkarrizketan ez dakigu nortzuk ari diren hizketan, piratak edo eskeletoak, erreferentzia galtzen da.

	Bai (2)	Hein batean/zalantza (1)	Ez (0)
Erreferentzia egoki gordetzen du, hainbat mekanismo erabiliz (izenordainak, sinonimoak, substantibazioa...)			X
Beharrik gabeko errepikapenik ez du egiten	X		
Aditz-formetan denbora korrelazioa zaintzen du			X
Lokailu egokiak eta anitzak erabiltzen ditu, hainbat modutan			X

Puntuazio irizpidea:

8ko batura	5 puntu	5eko batura	2 puntu
7ko batura	4 puntu	3-4ko batura	1 puntu
6ko batura	3 puntu	0-2ko batura	0 puntu

Erreferentzia eta kohesioan osotara: 0 puntu

7. Puntuazioa

